GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Sakanako Garapen Agentzia Goiener-ko bazkide

Ezkaatza>> 3

Bide lagun elkarteak turismo eragileak elkartzeko aurreneko topaketa egin du. Ibarrean barna beste hiru iragarri ditu

Ezkaatza>> 3

1936an Urbasako saroiko lezean hildakoetako bat etxarriarra zen

>>9

Inauteriak parez pare

>>13-14

Kin-Ball kirol berria Atakondoa eskolan

>>12

Arakilek aurtengo aurrekontua onartu du

>>5

Sakana erdialdeko kinto festak asteburuan

>>6

Beltza Nafarroako Bertsolari Txapelketan

>>15

otsailak 13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Imozko itzulia egingo dute Iratxo elkartekoek.

Zinema

Alguien a quien amar. Otsailaren 13an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Birdman. Otsailaren 13an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 15ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Stand by me Doraemon. Otsailaren 15ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Corazones de acero. Otsailaren 19an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.

Musika

Nafarroa 1512, Sykorax eta The Guilty Brigade. Otsailaren 13an, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartean.

Amets, Arriza, Dark Eider, Fe, Pandortek, Urko eta Eder Pardo dj-ak. Otsailaren 14an, larunbatean, 21:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartean.

Petti. Otsailaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Gernika tabernan.

Antzerkia

El tipo de la tumba de al lado. Otsailaren 14an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Txalo produkzioak.**

Amico. Otsailaren 15ean, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Bubamara taldea.**

Mendi irteerak

Imozko itzulia. Otsailaren 15ean, igande goizean. **Irurtzungo Iratxo elkartea.**

Mendaur. Otsailaren 15ean, domeka goizean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Arboro-Peña las cinco (Kanpezu). Otsailaren 15ean, domekan, 7:30ean Altsasuko autobus geltokitik. 39 km. Burunda klubeko mendi bizikleta taldea. **Aurretik izena eman.**

Erakusketak

Altsasuko inauteriak. Otsailaren 22ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Gure inauteriak. Otsailaren 14an, larunbatean, 18:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Elkartasun ekitaldia. Otsailaren 13an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Edurnerekin bat.**

Altsasun ere ahal dugu, herri batzarra. Otsailaren 13an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Podemos-Ahal Dugu.**

Etxarriko odol-emaileen festa. Otsailaren 15ean, igandean, 13:00etan Etxarri Aranazko Iturri-Eder tabernan.

Dei aldiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 13an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Inauteri segizioa

Etxarriarrekin batera irintarrak dira inauteriak ospatzen azkarren ibiltzen diren sakandarrak. Larunbatean ospatu zuten ihotea Irañetan. Goizetik majo gosaldu eta herrian barna kalejiran ibili ziren. Bazkaldu ondoren ere gauza bera egin zuten. Baina orduan Aiton Zarkoarekin egin zuten. Pertsonaia gaiztoak sutan bukatu zuen, beste behin ere. Herrian barna ibili ziren segizioko kideak Sakanako eta Euskal Herriko inauteriaren isla txiki bat ziren. Izan ere, Irañetako mozorroekin batera, Altsasuko momotxorroak eta sorginak, tturturroak eta beste zeuden. Frontoitik afaltzera joan ziren, jakina.

Irurtzungo bertso plaza

42. Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren final-laurdenetako saioa jokatu zen igandean Irurtzunen. Kultur etxea bete-betea zegoela jokatu zen saioa. Sei bertsolariak kantuan hasi aurretik beste seikote bat arduratu zen publikoari agurra kantatzeaz. Irurtzungo Atakondoa eskola publikoko sei ikasle izan ziren bertsozaleak saioaren aurretik agurtu zituztenak: Si Yuan Señas, Ane Huarte, Leire Irurtua, Uxue Lasarte, Irune Goikoa eta Maider Modrego. *Bertsolaritza irakaskuntzan* programaren bidez bertso ezagutzak eskuratu dituzte eta haiek igandean erakutsi zituzten.

ezkaatza >>

SAKANA

Sakanako Garapen Agentzia Goiener-ko bazkide laguntzaile berria

Sakanako Plan Estrategikoaren energia arloko zenbait atal elkarlanean landu nahi dira Goienerrekin, energia berriztagarrien kooperatibarekin batera

Mank-eko presidente Aitor Karasatorrek eta Goiener-ko Joanes Maizak akordioa sinatu zuten astearten. Karasatorrek gogora ekarri duenez, "Sakanako Plan Estrategikoan (SPE) etorkizunera begira adostutako ekintzak efizientzian, energia berriztagarrien sustapenean eta kultura energetiko berri baten lanketan oinarritzen dira".

Iker Manterolak, Sakanako Garapen Agentziako (SGA) kideak akordio markoaren testuingurua zehaztu du: "SPEan zehar ikuspegi berdina duten eragileekin elkarlana eta ekonomia sozialeko ekimenak sustatzea izan da hobetsi den lan moldea". Planean jasotako energiaren arloko helburuak lortzeko, beraz, Sakanako Garapen Agentzia Goiener-ko bazkide laguntzaile bihurtuko da.

Bi erakundeek "Sakanan energia berriztagarrien kontsumoa eta sorkuntza, aurrezpena eta eraginkortasuna" sustatuko dituztela jakinarazi digu Manterolak. Hala, aurreratu digu sentsibilizazio kanpainak eginen dituztela. Bestalde, sorkuntza sustatzeko elkarlanean ariko dira bi erakundeak. SGAren bidez energia hidroelektrikoa sortzeko gaitasunaren inguruko azterketa nahiko aurreratua dago. Eta hastear da haize energiari buruzkoa. Horien emaitzetan oinarrituta bi erakundeek aukerak aztertuko dituzte.

Aldaketa

Mank Goiener-ko bazkide kontsumitzaile bilakatu da, aurreko kontratuarekiko aurrezpena lortuz eta energia %100 berriztagarria kontsumituz.

Bertako turismo baliabideak ezagutarazteko antolatu zen topaketa. UTZITAKOA

Turismo eragileak elkar ezagutzen

Bidelagun elkarteak deituta, turismoarekin zerikusia duten eragileak elkartzeko deialdia zegoen egina astelehen arratsalderako. Hogei bat pertsona elkartu ziren Altsasuko Basoko Mari gunean. Haien artean landa-etxeetako jabeak, ostalaritzan aritzen direnak, artisauak, ekoizleak eta beste izan ziren. Basoko Marik Altsasuko Gartzia Ximenez kalean duen artisau eskaintza zabala eta turismo informazio gune gisa egiten duen lana ezagutzeko aukera izan zuten bildutakoek. Aldi berean, artisauen eta ekoizleen berri ere izan zuten.

Sakanako turismoko eragileei bertako turismo baliabideak ezagutarazteko antolatu zen astelehenako topaketa. Ibarra bisitatzen duten pertsonen egonaldiak aberasteko eta Sakanan eragina izan dezaten. Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak jakinarazi digunez, ibarrean barna beste hiru topaketa egiteko asmoa dute. Antza, guztiak martxan dauden turismo eragileen egoitzetan, sektoreak bertatik bertara ezagut ditzan.

astekoa

Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

Greziari begira

Greziarrek urtarrilaren 23an "aski da!!" esan zuten. Eta harrezkeroz hemen gaude, Sakanan ere, Greziari begira, beldurrez eta itxaropenez. Beldurrez irakurtzen eta entzuten dugunaren arabera Europar Batasunean ez delakoz onartzen Greziako herriak bere agintari berriei emandako mandatua: pobreziaren aurka borrokatzeko mandatua. Europak erabaki du Grezian demokrazia desagertu dela?

Estatuak dituen zorrak osotasunean ordaindu behar direla dio Schäuble jaunak, Alemaniako ekonomia ministroak, obligazioak obligazio direla (inposatutako usura interesak barne). Zordunekin hain zorrotz agertzen den gizon honek ahaztu egin du munduak Alemaniari bigarren gerra mundialaren ondoren egindako zorren %62 barkatu ziola (1953an Londreseko Akordioan). Horri esker altxa zuen Alemaniak burua XX. mendean. Ez du gogoratu nahi Merkel andereak Alemaniak 14 kasutan gainditu zuela defizit publikoaren muga bateratzearen ondoren, indarrean zeuden arauak urratuz. Ez dira agintari hauek kezkatu Greziako gobernuak munduari eskatutako diruarekin armak edo submarinoak erosi dizkienean enpresa alemaniarrei (defentsa ministro bat kartzelatua izan zen 8.000.000ko sobornoa jasotzeagatik Ferrostaal enpresatik, adibidez). Kezkatu dira, aldiz, gobernu berriak hiritar guztiek osasun zerbitzuak izango dituztela esan duenean.

The World Street Journal egunkarian argitaratu da Grezia "erortzen" utzi behar dela (ez dago jada nahiko lur jota?), Espainia ez "galtzeko". Galdu norentzat? Neoliberalismo gogor honentzat? Merkatu finantzieroentzat?

Eskolan ikasi dugu demokrazia Grezian sortu zela; gai izango dira greziarrak hiltzen ari den demokrazia hori berpizteko? Gai izango gara Europako beste herriok eskutxo bat botatzeko? Itxaropenez eta beldurrez bizi ko ditugu hurrengo pausuak.

barrutik kanpora

Jaiak eta elkartasuna

Gaurkoan ez dugu berez gai sozioekonomiko bati buruz hitz egingo. Jaien eta herritarren arteko loturaz egingo dugu hausnarketa. Nahiz eta aisialdia eta elkartasuna printzipioz bateragarriak ez izan, gure herrietan adibide ugari aurkitu ditzakegu bi kontzeptu hauek elkarturik agertzen direnak. Euskararen aldeko topaketak, edozein ezbeharri aurre egiteko herritarrek antolaturiko jaialdiak edota mota guztietako herri mugimenduek beren behar ekonomikoei aurre egiteko prestaturiko jai-gune eta txosnak dira honen adibide garbia.

Baina ez dugu bide horretatik ere gaia jorratu nahi. Gaur orokortasunean ibiliko gara, pertsona guztiek aisialdirako eskubidea dutela aldarrikatu nahi dugu. Gaur egungo gizartearen arazoetariko bat –asko ditu–, zera da, pertsonek ez dute beren aisialdirako denbora gehiegirik eta gainera, aisialdiak eta kontsumoak oso harreman estua dutela sinestarazi nahi izan digute. Aisialdiaren barruan herriak antolaturiko jaiek berebiziko garrantzia dute gure herrietan. Nahiz eta azken urteetan nolabaiteko gainbehera izan –kontsumo gutxiago =/ jai tristeagoak ekuazioa–, zenbait kolektibo parte-hartzearen bitartez jai herrikoiak suspertzeko lanetan dabiltza. Herriak antolaturiko jaiak herriarentzat direla sinesten dugu eta aisialdi horrekin guztiz bat gatoz.

Kontua da, orain dela aste batzuk, Altsasuko jai batzordeak proposamen bat egin ziola udalari herriko jaiak asteburuarekin bat egiteko, aurten igandetik ostegunera izan beharko bailirateke egutegia errespetatuz gero. Badirudi proposamena herritar guztien artean erabaki beharko dela eta guk geure iritzia eman nahi dugu.

Azken urteetan langabeziatik atera diren pertsona asko eta asko bere herritik kanpo lan egitera behartuta daude, gehienetan oso egoera kaxkarretan eta eskubide murrizketa ugarirekin. Guretzat krisialdiaren beste eraginetako bat hori da, migrazio lokala deitu genezakeena. Dagoeneko lan gehienek ez dute erlaziorik langilearen bizitokiarekin, eta horrek deslokalizazio pertsonalaren arriskua dakar. Laburbilduz, guk herritarrek prestatutako jaiak herritarrek goxatu behar dituztela uste dugu eta horregatik biztanleriaren elkartasunera jotzen dugu balore hau tradizioaren gainetik dagoelako.

Abian plataforma

hara zer dien

Internet bidezko harremanak

Internetek gure bizitza aldatu duela ezin dugu ukatu, gure egunerokotasunean beharrezko tresna bihurtu da, eta informazioa bilatzeaz gain, harremanetan ere bidelagun bihurtzen ari zaigu.

Gaurkoan, internetek bikote harremanak sortzeko eskaintzen dituen baliabideez arituko naiz. Ligatzeko eta harremantzeko sare asko eskaintzen dizkigu, eta geroz eta gehiago dira Internet erabiltzen dutenak ligatzeko kontuetan.

Jende berria ezagutzeko eta ligatzeko Interneten erabilera geroz eta zabalagoa da, nahiz eta tamalez askotan eremu batzuetan oraindik estalpean ematen diren istorioak diren.

Hau da, oraindik aho askotan entzun ohi da Internet ez dela bide egokia jendea ezagutzeko, jende desegokia egon daitekeelako, gezurretan ibili daitekeelako eta abar…

Eduki ditzakegun mamuak alde batera utzita, argi esan behar dugu Internet bide berri bat dela jendea ezagutzeko, eta ligatzeko. Interneteko sareetan tabernetan, kaleetan eta kiroldegietan dabilen jendea dago. Askotan, ligatzeko, jende berria ezagutzeko gogoz, eta egunerokotasunean topatzen ditugun zailtasunak kontutan hartuta, hala nola, adina, lotsa, jende berria ezagutzeko zailtasunak, ba Internetek eskaintzen dituen bideak hartzen dira.

Hori bai, Interneten erabileran elementu batzuk kontutan hartzea komenigarria dela uste dut:

1- Interneten eman nahi duzun irudia eraiki behar duzu, eta garrantzitsua da eraikitzen dugun irudi hori errealitatearekin bat etortzea. Azken finean harremanak aurrera egiteko ezinbestekoa delako aurrez aurre ezagutzea.

2- Intimitatean konpartitu nahi dugun informazioa zaindu behar dugu.

3- Interneten ez dago ezer magikorik, haragizko pertsonak daude, eta ezin gara horren zain egon, pentsatuz Internetekin aukerak gehitzen direnez, zenbat eta jende gehiago ezagutu, hobe izango dela. Harremanak eraiki egiten dira eta egunerokotasunean pertsona guztiekin zailtasunak topatuko ditugu; ba hori, hain justu gure denbora, espazioa, desioak konpartitzea erreza ez delako.

4- Ez luzatu gehiegi harreman birtuala. Hasierako momentuan jendea ezagutzeko baliabide bat izan daiteke, baina ezinbestekoa da aurrez aurreko harremana, pertsona ezagutzea, bere ondoan nola sentitzen garen ikustea. Eremu birtualean pertsona hori ondo ezagutzen ez dugunean gure irudimenak eragin handia duelako.

Beraz, eta dagozkigun ardurak hartuz, gure burua zainduz, eta harremanak eraikitzeko garaian gure eskuetan asko dagoela ahaztu gabe, ez lotsatu eta dituzuen baliabide guztiak erabili zuen desioei bidea zabaltzeko.

Olatz Berastegi, Lilima taldea

gutunak

Institutuko zuzendaritzak Altsasuko kintoei

Javier Casteig Barandiaran

Santa Ageda egunak ez dira samurrak izaten institutuan (…) Altsasuko herriari laguntza eskatu zenioten zuen festa ospatzeko, eta institututik ere pasatu zineten. Jendeak (…) 16.000€ eman zizuen, eta honako hau agindu ere bai: "Disfrutatu eta ondo pasa!" (…)

Astelehen goizean, zuetako batzuen bisita jaso genuen institutuan. Batzuk itxuran zeundeten; eta beste batzuk ez hain ongi. Zorionez, gauzak ez ziren asko nahastu (…) Eta azken eguna... Zein polita amaiera! (…) Bukatu da, akabo!

Astearte goizean, kinto izandako batzuk lehenengo orduan institutura agertu ziren, egunerokora itzultzeko asmotan; beste batzuk, aldiz, bukatutakoa institutuan luzatu nahian.(…) Kinto batzuk antzara bat eta oilo bat eskuetan zituztela agertu ziren, eta, gaztetxo askoren aurrean, animaliei barrabaskeriak egiten aritu ziren (…) Zeinen krudel eta bihozgabe! Halakoak ikusirik, batzuk negarrez hasi ziren, zuetako batzuek egindakoari begira. Zuzendaritza zuetako batzuk kanporatu nahian hasi zen, eta erantzun txarra jaso genuen: okerreko bidea hartuta, edozein lekutan erre, zakarrontziak lurrera bota... Zer erraza den batzuek une batean kinto guztien artean ongi egindako guztia kakaztea! Ondo pasatzeko eta disfrutatzeko agindua zenuten, baina, horretarako, zeuek zeuen buruarekin disfrutatu behar duzue, eta ez inguruan dituzuen izaki bizidunekin! Utzi besteak bakean!

Osorik: www.guaixe.eus

Altsasuar maiteok

Nerea Navarro, Altsasuko kintoen izenean

Gutun honen bidez gure sentimenduak azaldu nahi dizkizuegu, eskerrak eman eta baita barkamena eskatu ere.(…)

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu herritar guztioi. (…) Badakigu krisi-egoera larrian gaudela, baina hala ere dirua emateko prest egon zineten eta eskertzekoa da. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu (…) Andoni eta Pilotori. (…)

Azkenik, barkamena eskatu nahi dizkizuegu sortu diren eragozpenengatik. Arazoak eta triskantzak egon diren arren, espero dugu jendearen iritzia ez aldatzea eta huts egin ez izana, jendea orokorrean pozik baitzegoen gurekin. Horregatik, damututa gaudela esan nahi dugu. Besterik gabe, agur bero bat eta mila esker berriz ere.

Osorik: www.guaixe.eus

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Saileurrordetza

HESI BERRIA ETXARRIKO KIOSKOAN: Etxarri Aranazko Udalak kioskoan aurrekoa baino altuagoa den barradun hesia jarri du. Segurtasuna handitzeko neurria da, izan ere, haur txikiak aurreko hesiarekin min hartu eta susto bat baino gehiago izan delako.

sakanerria >>

» Irurtzun

Aizpea berrituta

Kide berriak sartu dira euskaltzaleen topagunean

Aizpeak, Irurtzungo euskaltzaleen topaguneak larunbatean itxi du indartzeko egin duen berritze prozesua. Azken bi hilabeteetan Irurtzungo makina bat euskaltzalerekin harremanetan jarri dira topaguneko kideak. Irurtzunen eragile euskaltzale baten beharra nabarmendu dute haietan. Aldi berean, aspaldiko kezka ere adierazi zieten: taldeak berritu beharra zuela, jende berria sartu beharra zegoela. Izan ere, egungo kideek urte luzeen jardunaren ondoren nekatuta daudela adierazi dute aspaldi.

Bilera errondak emaitzak izan ditu eta herritar talde batek Aizpea Irurtzungo euskaltzaleen topaguneren gonbiteari heltzea erabaki du. Orain arte Aizpeak antolatutako ekintzak eta lan ildoak jarraituko dituzte. Larunbat arratsaldean egin zuten azken bileran trantsizio aldia nolakoa izanen den zehaztu zuten.

Aizpea Irurtzungo euskaltzaleen topaguneko kideak larunbatean. UTZITAKOA

SAKANA

Oztopoen gainetik euskaraz bizitzeko aldarria egitera

UEMAko eta Kontseiluko ordezkariak manifestaziora deitzen, atzo.

Kontseiluak hilaren 28an Donostian eginen den manifestazioan parte hartzera deitu du

Azken hilabeteotan bai Espainia, bai Frantzia baita Nafarroako Gobernuaren "hizkuntza-politika ausartak egiten saiatzen ari diren administrazioen kontrako erasoa gero eta ageriagoa da". Jarrera hori salatu eta euskararen aldeko erabakian "irmo jarraitzeko determinazioa" azaldu dute nenganako elkartasuna adierazteko deitu du manifestazioa Kontseiluak.

Oztopoen gainetik euskaraz bizi-ko gara lelopean eginen da manifestazioa. Udalen euskalduntzean eta bidean sakontzen ari diren erakundeei EAEko gobernu ordezkariak jarritako errekerimendu eta helegiteak salatu ditu UEMAko buru Maren Belastegik: "euskararen balio ofiziala ari dira zalantzan ipintzen, eta hori, oso larria da". Bilbaok gogora ekarri du Frantziako eta Nafarroako Gobernuen bidez udalek jasandako "injerentziak", eta horiek salatu ditu. Udaletako arduradunek euskararen alde segitzeko erabakia "irmotasunez defendatu du".

Sakanako euskalgintzari deialdia

Sakanako euskalgintzaren batzarra deitu dute Sakanako Euskalgintzaren Bilguneak, Kontseiluak eta EHEk. Hilaren 21ean izanen da, 10:30ean, Etxarriko kultur etxean. Deitzaileek iragarri dutenez, batzarrak bi zati izanen ditu. Aurrenekoan Kontseiluak apirilaren 25ean Anaitasunan eginen duen ekitaldia aurkeztuko du. Bigarrenean, 11:30etik aurrera, Sakanako Euskalgintzaren Bilgunearen topaketa, hauteskunde aurrean, eskualdeko euskalgintzaren lehentasunak adosteko. Sakanako euskaltzaleak bat egitera deitu dituzte.

» Arakil

Udalak aurten 727.827 euro kudeatuko ditu

Arakilgo udala aztertzen ari da eraikinaren kanpotik igogailua jartzea aparkalekutik plazara eta eraikinera igotzeko.

Hainbat lan eginen dituzten zazpi langile kontratatzeko 75.000 bideratuko ditu

Egiarretako lanetarako eskatutako mailegua ordaindu ondoren udalak ez du inolako zorrik

Arakilgo Udalak aurreko urtean baino 74.000 euro gehiago kudeatuko ditu aurrekontuan, 727.827,22 euro. Legegintzaldi honetan ohikoa denez, udalak diru sail handi bat, 75.000 euro, hainbat lan eginen dituzten zazpi langabetu kontratatzeko erabiliko du. Kontratazioak gauzatu ahal izateko dagoeneko Nafarroako Gobernuari 40.000 euroko diru-laguntza eskatu dio.

Igogailua

Kontzejuekin elkarlanean Arakilgo Udalak makina bat lan egin ditu ibarreko herrietan. Bide beretik segituko dute aurten ere eta egiteko horretarako 35.000 euro izanen dira. Baina bestelako inbertsioak ere aurreikusi dira. Udaletxean arkitektura-oztopoak kendu eta herritar guztien irisgarritasuna bermatzeko igogailua jarriko du udalak. Horretarako 58.700 euro bideratu dira aurrekontuan.

Ruben Goñi Urroz alkateak esan digunez, igogailua udaletxe barruan edo kanpoan jartzea aztertzen ari dira: "Udaletxeko zeharaldean dagoen aparkalekutik osasun etxera, udaletxeko sarrerara eta udaletxera eskailerak erabili gabe igotzeko aukera emanen luke". Goñik aitortu du oraindik proiektua lantzen ari direla eta Irurtzungo Udalaren baimena beharko litzatekeela egiteko.

Arakilgo ibilbide sarea sortzeko ekimenari bultzada berria emanen dio aurten udalak. Hala Aixitako gaztelurako ibilbidean segurtasun neurriak jartzeko 4.000 euro bideratuko ditu. Beste 6.000 Egiarreta eta Hiriberri arteko oinezkoen ibilbidea egokitzeko. Bestalde, gizarte zerbitzu, kultura eta kirol jardueretarako eta eskola-garraiorako sailak mantentzen ditu.

SAKANA

Bederatzikote bakaikuarra eskean hasteko prest.

Iturmendin, koadrila ederra osatu zuten kinto gazte, kinto, kinto zahar eta beti kintoek.

Domekan dantzatu zuten plazan kinto urdiaindarrek. Larunbatean elurrez betea zegoen.

Musika eta etxajuak festa eta eskerako ezinbestekoak Ziordian.

Kinto ospakizunen segida

Egunotan kinto ospakizunak izanen dira Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun eta Etxarri Aranatzen

Argazkiak: Larraitz Amadoz Lazkano

Uharte Arakil

Aurten 5 kintok ospatuko dituzte kinto ospakizunak Uharte Arakilen: Joseba Gorriti, Itsaso Orbegozo, Odei Uharte, Iñaki Astiz, Mikel Lizaranzu eta Santiago Churo. Atzo, ostegunarekin, hasi ziren ospakizunak. Motxalen bazkaltzera bildu ziren eta arratsaldean baserrietan aritu ziren eskean. Udalak mojen etxeko gela bat utzi die eta bertan lo eginen dute ospakizunek irauten duten bitartean.

Gaur, ostiral goizean, fabriketara joanen dira eskatzera, eta ostiral arratsaldean eta larunbatean herriko kale guztietan eskatuko dute. Hamaiketakoak, bazkariak eta afariak Uharteko taberna eta jatetxeetan eginen dituzte, txandakatuz. Eskean aritzen diren bitartean musika lagun izanen dute, eta bonboaren doinuak ezin dira falta Uharten. Larunbatean ihote ospakizunekin bat egingo dute eta mozorrotuta ikusiko ditugu kintoak.

Lakuntza

Astelehen goizean plazan elkartuko dira kintoak. 10 kinto dira, baina haiekin beste 11 kinto gazte edo "acompañante" ibiliko dira, guztira 21 kide. Kintoak: Andoni Egurza, Irune Vitoria, Janire Cerviño, Jon Arregi, Leire Vilariño, Marina Zabala, Oihan Soto, Roberto Zubieta, Beñat Torrente eta Raquel Amores. Guztiak elkarrekin etxez etxeko eta lantegiz lantegiko eskean ibiliko dira astelehen goiz eta arratsaldez, musikaren doinuak lagun dituztela. Koheteek adieraziko dute herriko zein txokotan dauden. Lakuntzako jatetxeetan bazkaltzeko eta afaltzeko geldituko dute eskea. Gaua Tolosako inauterietan despedituko dute, autobusa Uharteko kintoekin konpartituz. Asteartean, Tolosatik bueltan gosaldu ondoren, bezperako martxan bera izanen dute, eskean eta bazkari-afarietan. Eguna Altsasuko inauterietan despedituko dute, parrandan.

Arbizu

10 kinto bilduko dira euren festa ospatzera: Haritz Nazabal, Iosu Mendiola, Dario Moreta, Saioa Estanga, Maialen Zelaia, Julen Maio, Mikel Enriquez, Intza Insausti, Gari Satrustegi eta Nekane Garcia. Gaur, ostiralarekin, afaltzera bilduko dira Polikiroldegian eta gero parranda egingo dute herrian bertan. Bihar ihote ospakizunetan parte hartuko dute kintoek, baina bakoitzak bere koadrilarekin. Igandean, berriz, goizean jarri dute hitzordua. Trikitilarien laguntzarekin etxez etxe diru eskean ibiliko dira kintoak. Herriko jatetxeetan bazkaldu eta afalduko dute, eta gauean Tolosara joango dira.

Astelehenean bazkaltzera bilduko dira. Gaueko afariaren ondoren, atzera ere Tolosara joango dira autobusez, kinto etxarriarrekin batera. Asteartean, bazkaldu ondoren, inauteri egitarauaren barruan haurrendako jolasak antolatuko dituzte kintoek eta amiñ handia eta attun txikia erreko dituzte. Ondoren, herri afaria prestatuko dute eta egun Altsasun edo Etxarrin despedituko dute.

Etxarri Aranatz

Etxarriko kintoek asteleheneko afariarekin hasiko dituzte kintoen ospakizunak, baina aurretik Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde ihote ospakizunetan eskean ibili dira, eta ateratakoarekin afaltzera bildu izan dira. Aurten 14 kinto daude: Irati Alzelai, Nerea Riego, Nerea Igoa, Nahia Larraza, Oihan Karasatorre, Beñat Araña, Jurgi Kintana, Asier Estarriaga, Izai Mauleon, Jon Razkin, Julen Etxabarri, Joanes Bakaikoa, Mikel Arratibel eta Saioa Araña.

Astelehenean Iturri-Eder jatetxean bapo afaldu eta gero, kinto zaharrekin batera Tolosara joango dira parranda egitera. Autobusa Arbizuko kintoekin partekatuko dute. Asteartean goizean bueltatu eta gero, baserritarrez jantzi, eta kintoek etxez etxeko eskeari ekinen diote, musika lagun mozorrotuen segizioa ondoan dutela. Bordan bazkaldu ondoren, arratsaldean, kalejira ere eginen dute eta parranda ordu txikietara arte luzatuko da. Bestalde, San Kiriko, San Adrian eta Ama Birjiñaren egunean Dantzakia dantzatuko dute aurtengo kintoek.

Altsasuarrek 16.000 euro jaso dituzte

Kinto berantiarrenEk astearte goizaldera arte luzatu zituzten aurtengo ospakizunak. Bost eguneko festako aurrekontua altsasuarrek emandako 16.000 eurorekin estali zuten.

Altsasuko kintoek urtez urte jasotakoa

Urtea	Kinto kopurua	Jasotako dirua
2015	29 mutil / 31 neska	16.000
2014	25 mutil /19 neska	13.904
2013	25 mutil /19 neska[5]	12.945,7
2012	27 mutil / 36 neska	15.897
2011	21 mutil / 23 neska	15.388,74
2010	22 mutil / 23 neska	14.097
2009	32 mutil / 29 neska	14.459
2008	29 mutil / 44 neska[4]	16.464,88
2007	31 mutil / 24 neska	17.393
2006	30 mutil / 35 neska	13.890
2005	29 mutil / 35 neska[3]	16.271
2004	37 mutil / 20 neska	16.351
2003	42 mutil / 39 neska	17.000
2002	36 mutil / 28 neska	13.112,88
2001	40 mutil / 43 kinta[2]	15.578,23 (2.592.000 pta)
2000	32 mutil / 45 neska[1]	15.626,31 (2.600.000 pta)
1990	53 mutil /(52 neskek ez zuten eskatu)	5.655,58 (941.009 pta)
1979	53 mutil / (80 neskek ez zuten eskatu)	2.374 (395.000 pta)

1 Aurrenekoz erregina bat aukeratu zen. 2 Bi erregina aukeratu ziren estreinakoz. 3 Bi neskek aurrenekoz zortzikoa dantzatu zuten. 4 Neska ia denek dantzatu zuten zortzikoa. 5 Neska-mutilak elkarrekin eskatu zuten. Ordura arte, hamarkada pasa, neskek Santa Ageda bezperan eta mutilek egunean.

» Altsasu

Porrotx gaztetxean.

Gaztetxeari zorionak zuri kantatzen

Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) Gaztetxearen 25. urteurrena dela eta hilero ekitaldiren bat antolatuko du. Atzo izan zen aurrena, Porrotx pailazoaren bisita. Britainarren puntualtasunez hasi zen ikuskizuna. Ordurako dena prest zegoen Gaztetxean, sua egina eta lurrean etxetik ekarritako hainbat manta haurrak eser zitezen. Ikuskizuna Porrotxek berak bakarrik egin zuen. Gaztetxeari zorionak zuri abestu zion baita marrazki bat egin ere, besteak beste. Bildutako guztiei Txo Mikmak txikia azken ikuskizuneko kartela oparitu zien. Akaberan AGAkoek txokolatea eta patata tortilla eskaini zizkien denei.

» Lakuntza / Sakana

Euskararen aktibazioa

EHEko kideak TELP ikastaroan.

Larraitz Amadoz Lazkano

Euskal Herrian Euskaraz-eko (EHE) kideek Lakuntza izan zuten bilgune larunbatean. Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako 25 kide batu ziren 9:00etan, ikastaroak 17:00ak bitarte iraun zuen. Gemma Sangines izan zen ikastaroko gonbidatua, horrela, TELP (Taller d'espai lingüístic personal) tailerraren inguruan ikasteko aukera izan zuten Lakuntzara gerturatu ziren guztiek. TELP tailerra euskara eta hizkuntzarekin erlazionatu zuten. Hizkuntza gutxituek, euskara kasu, normaltasun eza dute eta horrek ezerosotasuna sortzen du hiztunengan. Egoera jakinetan euskarari uko egiten zaio eta hori zergatik gertatzen den azaltzeko TELP-aren oinarrizko psikologia baliatzen da. Goizean saio teoriko eta praktikoak egin zituzten, bazkaltzeko atsedenaldiaren ondoren, berriz, hizkuntzaren aktibazioaren inguruko estrategiak garatu zituzten eta azkenik balorazioari tartea utzi zioten.

» Arakil

Ikastaro eskaintza

Arakilgo Udalak udaberrira arte irauten duten hiru ikastaro antolatu ditu. Batukada ikasi nahi duenak otsaila eta maiatza artean izanen du aukera, ostegunetan, 19:30etik 21:30era. Erroldatuek 70 euro ordaindu beharko dituzte, erroldatu gabeek 90. Ordutegia zehazteko badago ere, natur kosmetikari buruzko ikastaroa eginen da Etxeberriko elkartean, martxoa eta garagarzaro artean (80 eta 92 euro izen ematea). Ihabarren, aldiz, gimnasia ikastaroa izanen da martxotik garagarzarora arte. Zehazteko dago ordutegia eta kuota. Informazioa eta izen ematea Arakilgo udaletxean, otsailaren 25era arte (948 500 101, ayuntamiento@arakil.infolocal.org).

Arakildarrak ikastaro batean. ARTXIBOA

» Etxarri Aranatz

Udalak UPNri akusazio faltsuak zuzentzeko eskatu dio

Herriko seme kuttun izendapena Vicente Nazabal Auzmendiri ez zaiola eman argitu du

Nafarroak frankismoarekin lotura zuten pertsonei aitortza publikoak eta administratiboak egin zizkien. Nafarroako Parlamentuak haiek baliorik gabe uztea erabaki zuen hilaren 3an. Horren harira Carlos Garcia Adanero UPNko parlamentariak Diario de Navarrari adierazi zion: "Bildu gai hauetan irakaspenak emateko ez da egokiena, ETAko hiltzaileei herriko seme kuttun izendapenak mantentzen dituelako, Etxarri Aranatzen, esaterako".

Udala aipatu parlamentari eta egunkariari jakinarazi die adierazpen horiek "guztiz faltsuak" direla. Hori erakusten duen eta auzi batean erabili zen udal idazkariaren ziurtagiri baten kopia ere bidali die. UPNri eta Diario de Navarrari esandakoak zuzentzeko eskatu die Etxarri Aranazko Udalak.

» Uharte Arakil / Lakuntza / Arbizu / Altsasu

Gobernuak haur eskoletarako diru-laguntzak jakinarazi ditu

Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeendako diru-laguntzak onartu zituen herenegun. 5,5 milioi bideratu ditu 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hartzen dituzten herrialdeko 81 ikastetxeei. Sakanan lau udalen hiru ikastetxek jaso dute laguntza, guztira 127.791 euro. Dirua jasotzeko Hezkuntza Departamentuak ikastetxe bakoitzeko udal titularrarekin hitzarmen bana sinatuko du. Haur eskolen finantzaketa udalen eta familien ekarpenarekin osatzen da.

Aurreko urteko apirilean, ikasturtearen erdia pasa denean eta udaletxe askok urteko aurrekontuak itxita edo ixtear zituztenean, Hezkuntza Departamenduaren jakinarazpena jaso zuten. Haur eskoletarako hitz emandako diru-laguntzaren %30 ez zuela ordainduko jakinarazi zien, dirurik ez zuelako. Gobernuak zegokiona ez ordaintzeak udalen bizkar gastu bat gehiago jarri zuen. Aurten halakorik ez pasatzea espero dute.

Umeak haur eskolan. ARTXIBOA

Ikastetxea			
Herria	Ikastetxea	Unitateak	Diru-laguntza
Uharte Arakil	Pausoka	1 unitatea	31.712
Arbizu / Lakuntza	Kattuka	5 unitate	54.855
Altsasu	Txirinbulo	3 unitate	41.224

SAKANA

Ilbeltzean 29 langabe gutxiago

Basoan lanean.

Aurreko hilaren akaberan 1.610 lan bila zebiltzan sakandarrak. Nafarroako populazioaren %3,19 izanik langabeziaren %3,26 zuen ibarrak ilbeltzean

Abendu akaberan 82 langabe gehiago bazeuden, ilbeltzean beherako joera hartu du langabeziak Sakanan eta %1,76 jaitsi da. Hala ere, emakumezkoen artean langabeziak gora egin du, 854ra iritsi arte (16 gehiago, %53,04,). Gizonezkoen artean, berriz behera egin du langabeen kopuruak 756an geldituz (45 gutxiago, %46,96). Adinari dagokionez, langabe gehien dituen adin tartean 45 urte edo gehiagokoena da, 744 (%46,21, bat gutxiago). Ondoren, 25 eta 44 urte bitarteko 718 sakandarrak daude (%44,6, 18 gutxiago). Azkenik 25 urte baino gutxiago duten 148 sakandar dauden enplegu bulegoan izena emanda (%9,19, 10 gutxiago).

Sektoreka

Zerbitzuen sektorean aritu nahi luketen sakandarrak 955 dira (%59,32, 15 gehiago). Industrian lan eginen luketenak 422 dira (%26,21, 35 gutxiago). Eraikuntzarako lan eskatzaileak 110 dira (%6,83, bi gutxiago). Lehen sektorean lana nahi lukete 39 sakandarrek (%2,42, lau gutxiago). Aurretik lanik egin ez dutenak 84 dira (%5,22, hiru gutxiago).

+www.guaixe.eus

Langabezia herrika		
Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	54	3
Irurtzun	158	-6
Irañeta	13	3
Uharte Arakil	56	2
Arruazu	2	1
Lakuntza	71	-4
Arbizu	68	-5
Ergoiena	16	-2
Etxarri Aranatz	158	2
Bakaiku	15	-3
Iturmendi	25	1
Urdiain	30	-1
Altsasu	796	-10
Olatzagutia	123	-7
Ziordia	24	-3
Sakana	**1.610**	**-29**

» Altsasu

Edurnerekin bat egiteko elkartasun ekitaldia

Hainbat altsasuarrekin batera eman zuen prentsaurrekoa Edurne Martinezek.

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Hilaren 25ean Donostian aginteari atentatua leporatuta epaituko duten Edurne Martinezi elkartasuna adierazteko dantza, antzerki, musika, bideoak eta bestelakoez osatutako ikuskizuna prestatu dute gaurko. Hala salatuko dute epaiketa. Edurnerekin bat dinamikak antolatu du eta altsasuarrak kultur gunera joatera animatu ditu.

Donostiako herri harresian Segiko kideei babesa eta elkartasuna azaldu zieten makina bat gaztek duela bi urte eta Ertzaintzak Martinez atxilotu zuen. Harendako 15 hilabeteko espetxe zigorra eta isuna eskatzen dute. Edurnerekin bat dinamikatik adierazi dutenez, "mendeku politikaren ondorio garbia izan ziren orduko bi atxiloketak. Edozein izan zitekeen atxilotua". Ondorengo herri harresietan ere akusazio berarekin atxilotuak izan zirela nabarmendu eta mobilizazio haietan erasotuak herri harresian parte hartzen zuten gazteak zirela nabarmendu dute. Ertzaintzari "euskal gazteria kriminalizatzeko inpunitate osoz" jokatzea egotzi diote.

Hurrengo **deialdiak**

Otsailaren 21ean, larunbatean **13:00etan** argazki erraldoia eginen da plazan.
Otsailaren 25ean, asteazkenean, **goizean** Donostiako auzitegira joateko deia.
19:00etan kontzentrazioa Altsasuko udaletxe parean.

» Arruazu

Sei urteko espetxe zigor eskaera Ganboarendako

Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak sei urteko espetxe zigorra eskatu du Askapenaren kontrako sarekadan atxilotutako bost pertsonendako. Haien artean Aritz Ganboa De Migel arbazuarra dago. Horrekin batera, fiskaltzak erakunde internazionalista eta beste hiru elkarte legez kanpo uztea eskatu du. Akusazio partikularren eskaerak jakitea falta da. Pablo Ruz epaileak duela hiru urte emandako autoan Askapena ETArendako "kanpo babesak" lortzea zela idatzi zuen.

Ganboa 2010eko irailaren 28an egindako sarekadan atxilotu zuten beste sei pertsonarekin batera. Ganboak espetxean ia hiru hilabete eman zituen eta 60.000 euroko bermea ordaindu ondoren atera zen Navalcarnerotik. Epaiketa datarik ere ez dago, baina Askapenakoenaren aurretik 2007an Seguran atxilotutakoen epaiketa egin behar da.

» Altsasu

Zelandiko haurrak Josefina Arregiko aiton-amonekin harremanetan

Zelandi eskola

Urtarrila guretzat oso hilabete berezia izan da. Josefina Arregi klinikan dauden aiton-amona batzuekin proiektu bat aurrera atera dugu. Asmoa helduen gaitasunak baloratuz, haien autoestimua hobetzea zen. Baita Alzheimerra eta zahartze prozesuaz geroko jarrerak normaltzea. Guzti hau giro alai eta goxo batean eraman dugu.

Zelandiko ikasleak klinikako ariketa gelan.

Hiru saiotan banatu genuen proiektua. Lehenengoan klinikako mediku, gizarte langile eta psikologoek gaixo dauden aiton-amonek zer zuten eta nola tratatu behar genituen azaldu ziguten eskolan bertan, bideo interaktibo baten laguntzaz. Bigarrenean, zoragarria izan zen, aiton-amonak gure eskolara etorri ziren. Txikitan eskolan zer ikasi eta zertan aritzen ziren azaldu ziguten eta gurearekin alderatu genuen. Beraien gustuko jolasetaz ere aritu ginen. Guk soka saltoan eta ziben erabilera azaldu genien eta beraiek tabena eta kromoena.

Hirugarren saioan gu klinikara joan ginen. Ze poza, gure aiton-amona lagunak han ikustean asko poztu ginen. Agurtutakoan dituzten tresnak ezagutu eta erabili genituen: garabiak, gurpildun aulkiak, makuluak… eta bukatzeko, hainbat ariketa: eragiketak, memori jokoak , baloiaren bidezko jolasak… egin genituen. Zer gustura ibili garen gure aiton-amonekin!

» Altsasu

Eraberritutako Eroski Centerra mustu dute

Sarreran kintoen errege-erreginak eusten zioten zinta Garazi Urrestarazu alkateak moztuz, hala mustu zituzten Eroski Centerren egindako eraberritze lanak. Inguruan Eroski taldeko hainbat ordezkari eta Altsasuko Udaleko zinegotzi Unai Hualde eta Cristobal Lanz zeuden. Dendara sartu aurretik Aroa Ramos Flores kintoak aurreskua dantzatu zuen sarreran bertan.

Aurretik, Eroskiko eskualde arduradun Floren Bizkaik esan zuen denda "aldatu" dutela, "kontsumitzaileak eskatzen duenari egokitzeko". Dendako arduradun Josune Bonok nabarmendu zuen Nafarroako 250 hornitzaile baino gehiagoren produktuak eskaintzen dituztela dendan. Bezeroen proposamenak, kezkak eta zalantzak 48 orduren buruan erantzuten dituztela azpimarratu zuen. Baita herriko hainbat ekimen eta jarduera aurrera eramateko Eroskik laguntza ere ematen duela.

Bizkaik gogora ekarri zuen 40 urte baino gehiago bete direla Eroskik Altsasun aurreneko denda zabaldu zuenetik. Duela 11 urte Intxostia Zeharbideko denda utzi eta gaur egungoa, Intxaurrondo plazakoa, mustu zuten. Aldaketak ekarri zuena laburbildu zuen Bizkaik: "zerbitzu handiago bat eman zuten, denda handiago batean eta gama ezberdinarekin". Gaur egun dendan 20 langile kooperatibistak lan egiten dute eta aldikako beste 10 batek gehiago. Ekitaldiaren eta dendara egindako bisitaren ondoren Nafarroako ekoizleek euren mozkinak dastatzeko eskaini zituzten.

»

Foruzaingoak lapurra identifikatzeko laguntza eskatu du

Altsasuko Frontoiko Zeharbideko 9. eraikineko pisu batean lapurreta izan zen ilbeltzaren 27an, 12:25 eta 12:35 artean. Indarkeria erabiliz egindako lapurreta izan zen. Lapurreta argitzeko Foruzaingoak altsasuarrei laguntza eskatu die. Bai egun hartan nola aurreko eta ondorengo egunetan ere "egoera, ibilgailu edo jarrera edo tokiagatik arraroak ziren pertsonak" ikusi zituztenek Foruzaingoari jakinarazteaeskatu dute. Horretarako 112 telefonora hots egitea eskatu dute. Deiak konfidentzialtasun gorenekoak direla ere ziurtatu dute. Foruzainek nabarmendu dutenez, "edozein informazio, txikia izanagatik ere, egilea identifikatze ikerketarako guztiz baliagarria izan daiteke".

SAKANA

Hualde Geroa Bairen lehendakarigaiaren laguntza taldean

Geroa Baik, Nafarroako Gobernuko lehendakaritzarako hautagaitzan Uxue Barkos lagunduko duen taldea osatzen duten pertsonak hautatu ditu. Zortziko hori osatzen duten artean dago Unai Hualde altsasuarra. Pertsona horiek Barkos lagunduko dute, zeina koalizioko herrigune edo lekuko antolakundeen bozen %97,47arekin hautatua izan zen hautaketa prozesu ireki batean.

» Irurtzun / Sakana

Gazte Martxak Irurtzunen geldialdia eginen du

Aitzina eta Ernai gazte erakundeek Gazte Martxa antolatu dute apirilaren 3tik 5era. *Herria mugarri, gazteok martxan!* Lemapean martxak Lekunberri, Irurtzun, Berriozar eta Iruñea izanen ditu geldialdiak. Hiriburura Aberri Egunerako iritsiko dira. Mendian barnako ibilaldia eginez lotuko dituzte herriak eta hiria. Martxak gazteak "elkar ezagutu, elkar harremandu eta elkarrekin eztabaidatu eta gozatzeko" aukera emanen dutela esan dute antolatzaileek.

Irurtzunera aurreneko egunean iritsiko dira eta kanpaldia eginen dute. Antolatzaileek aurreratu dutenez, honakoak izanen dira Irurtzunen: xamurtasun tailerra, Uluka taldearen kontzertua, bertso-olinpiadak, gazte taldeen kontzertu maratoia (www.gazteokmartxan.info atariaren bidez aukeratuko dira), nazioarteko ordezkariekin independentziaren inguruko mahaingurua eta Euskal Herriko prozesu eratzailearen inguruko hitzaldia.

SAKANA

Podemos Nafarroako zuzendaritza aukeratzen

Alderdian izena emana dutenek ostiral gauera arte dute telematikoki botoa emateko aukera

Nafarroan Podemos-Ahal Dugu alderdiko zuzendaritza zein den larunbatean jakinen da. Nafarroan hiru hautagaitza daude. Kideek 34 lagunez eta idazkari nagusiaz osatutako zuzendaritza aukeratuko dute. Idazkari nagusia alderdiaren estatuko Herritarren Kontseiluko kide izanen da. Bestalde, Altsasuko Podemos Ahal Duguk biharko herri batzarra deitu du. 19:00etan izanen da, Altsasuko Gure Etxean.

» Etxarri Aranatz

Urbasako saroiko hezurduretako bat 36an hildako etxarriar batena da

Narciso Artola Razkin zen Aranzadi zientzia elkarteak handik atera zituen hamarretako bat. Beste bat Jose Urbizu Berasategi zegamarra da.

Saroiko lezetik ateratako gainontzeko bostak identifikatzeko DNA probak egiteko dirua biltzen ari dira Ameskoan eta Sakanan, Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoko legea ez baitu bete eta ez du dirurik eman

XX. mendeko erdialdean Ameskoako Balbino Garcia de Albizu Jimenezen familiak Urbasako saroiko leizean hilarria jarri zuen. Bazekiten han hil zituztela 1936an Balbino Garcia de Albizu Usarbarrena, Gregorio Garcia Larranbebere eta Balbino Bados Garcia. Hirurak ere UGTko kideak. Gorpuak lezetik ateratzeko eta identifikatzeko lana hartu zuten Garcia de Albizuk eta beste hainbat ameskoarrek.

Gorpuzkinak ateratzeko baimena jaso eta 2013ko martxoan sartu ziren lezera Aranzadi zientzia elkarteko ikerlariak eta Lizarrako espeleologia taldeko kideak. Hamar metroko sakoneran hiru gorpuzkin opatzea espero zuten, baina martxoaren 29an hamargarrena eta azkena atera zuten.

Hildakoaren emazte Brigida Igoa Satrustegi eta Ignacio, Xele, Benita eta Mª Angeles seme-alabak.

Ikerketa

Hiru ameskoarrak zirela jakina zen, baina beste zazpiak identifikatu beharra zegoen eta lan horri ekin zion Garcia de Albizuk. Horretarako, Urbasan hildakoak zituzten sakandarren senideekin harremanetan jarri nahi izan zuen. Historia-memoriaren gaia landu duen Jacinto Gomez Viniegrak bi aitonak erailak dituen Altsasuko Amaia Urkijo Artolarekin jarrizen harremanetan. Garcia de Albizu eta Urkijo ikerlari bikote bihurtu dira, Urbasako saroiko lezeko zazpi gorpuzkinei identitatea emateko. Eta haietako bat Urkijo beraren aitonetako bat izatea suertatu da.

Urkijok prentsaren bidez jakin zuen Aranzadik lezetik hamar pertsonen gorpuzkinak atera zituela. 2013ko urte akaberan jarri ziren ameskoarra eta altsasuarra harremanetan. "Liburu bat idazten ari da eta ataletako batek Urbasako hiltegia izenburua du. 1936an Urbasan hildako guztien kasuak jaso nahi ditu eta nuen informazioa eman nion", azaldu digu Urkijok. Garai hartan altsasuarrak Etxarri Aranazko udaletxean bilaketa egin zuen eta, aldi berean, Altsasu Memoria kolektiboarekin ari zen gaia lantzen.

Bi ikerlariek ikertzearen ikertzeaz datu kontraesankorrak opatu zituzten. Eta ondorioztatu zuten Otsoportillon zeudela pentsatzen zuten edozein saroiko lezean egon zitekeela. "Balbinok esaten zidan: Amaia Otsoportillon bi aitonak dituzu. DNA probak egiten badizkizute bi baztertu edo ziurtatzen ditugu. Galtzekorik ez duzu". Hala, Urkijoren gurasoei 2014ko irailean hartu zizkieten DNA laginak. "Susmatzen nuen moduan Etxarriko aitona agertu zen: Narciso Artola Razkin".

Urkijok esan digunez, bere aitona han egoteak identifikatzeko falta diren bost pertsonetatik lau zein izan daitezkeen badakitela uste dute. Ikerketak hori pentsatzera eraman ditu, baina DNA probak egin arte, zuhurtziaz hitz egiten du Urkijok. "Bat faltako litzateke, kasuak baztertuz identifikatzea lortuko duguna. Argi dago sakandarren gorpuzkinak direla, ameskoar hildako gehiago ez baitago". Urte bete pasa daramate ikerketa horretan.

Hil... eta gehiago

Lezean hamar gorpuzkinekin batera Guardia Zibilak indargabetu zuen eskuko granada bat eta, gutxienez, lau txakurren hezurdurak opatu zituzten Aranzadikoek. Garcia de Albizurena da azalpena: "txakurrak zakutan jaitsiko zituzten. Hildakoen gorpuak janez elikatu ziren eta paretetako ura edan zuten. Jateko gehiago ez zutenean elkar hil eta jan zuten".

Narciso Artola Razkin

Rafaelaren eta Miguel Sebastianen semea 1903ko azaroaren 29an jaio zen. Brigida Igoa Satrustegirekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten: Ignacio, Celedonia, Benita eta Maria Angeles. 33 urte zituela atxilotu zuten, 1936an. 20 bat egun espetxean izan zuten. "Atera eta kamioira igoarazi zituzten". Irailaren 6ko goizaldean, Urbasan, arrazoi politikoengatik fusilatu zuen Falange Españolako pelotoi batek.

Identifikatutakoa Urkijoren amaren aita zen. Amak dioenez, "nire anaiak Alberto haren antza du. Aitonak ez zuen altura handirik. Langile handia. Ikazkina izan zen. Bizkaiko labe garaietan lanean egon zen. Gurasoen nagusiak ziren eta lurrak lantzeko eta abarrerako anaia ezkongabeak bueltatzeko eskatu zion. Kezka ugari zituen eta UGTko kide zen. Langileak defendatzeko UGTko taldea sortu zen Etxarrin eta aitona diruzaina zen. Talde hartako bostak atxilotu zituzten".

Etsia eta gezurra

Bi aitonak opatzeko inolako esperantzarik ez zuen Urkijok. "Beti Otsoportillon izanen zirela uste izan dugu. Hori dioten heriotza-agiriak ditugulako, lekukoen zin eta sinadurak dituzte". Urkijori Garcia de Albizuk "begiak zabaldu" zizkion: "berdin dio heriotza-agiriak izatea. Hiltzeko gai izan badira, gezurra esateko gai izan dira". Lezeko bat bere aitona zela esan ziotenean, pozarekin batera Urkijok ondoeza sentitu zuen. "Sentimendu pilaketa izan zen. Alde batetik: bazen garaia! Bestetik, bizi guztia gezur bat sinesten. Amorrua! Amonaz eta hilda dauden amaren bi ahizpez gogoratu nintzen: hemen baleude zer pentsatuko lukete?" Amak albistea negar batean jaso zuela adierazi digu: "gezurra esan digute, gezurra esan digute, gezurra esan digute". Hori gutxienekoa zela esan zion. Aurkikuntzaren ondoren amak eta

osabak lasai hil daitezkeela adierazi dute. Aurten ere iraileko lehen igandean hara joanen dira, "baina aurten ni Otsoportillora eta Urbasako saroira joanen naiz".

Beste aitona

1936an hil zuten Urkijoren beste aitona Victor Urkijo Tobarina da. Haren gorpuzkinak identifikatzea zailagoa izanen dela dio Amaiak."Ni saiatuko naiz. Hezur bat badago eta aukeraren bat badago, ni nire beste aitona identifikatzen saiatuko naiz. Familia eta jende ugarik lagundu dezake honetan, jakina". **+www.guaixe.eus**

Kostua

Gorpuzkinei identitatea emateko DNA azterketak egin behar dira eta horrek kostu bat du. Bost identifikazioak egiteko diru falta da traba. Urkijok azaldu digunez, "Memoria Historikoaren Legea indarrean jarri beharko luke Nafarroako Gobernuak. Berak ordaindu beharko lituzke DNA azterketak. Baina dirua Aranzadi zientzia elkartea aurreratzen ari da eta bera ari zaigu esaten: aizue, hemen ordaindu gabeko faktura bat duzue. Probekin jarraitu nahi baduzue, faktura hau ordaindu behar da". Gobernuak ez du diru-laguntza deialdirik egin.

Horregatik, senideek diru eske Urbasan herritarren bat hilda duten Ameskoako eta Sakanako herrietako udaletara jo dute. Gure ibarrean Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia, hain zuzen ere. Etxarriko Udalak dagoeneko diru ekarpenari oniritzia eman dio. Beste udalen erantzunaren zain daude senideak. Gainera, "identifikatuak daudenen senide garen hiru familiak diru-ekarpena egiteko prest gaude", argitu du Urkijok. Lezean egon daitezkeenen senideak ere dirua jartzeko prest daude. Baina "han dagoen jakin gabe dirua ezin da jarri. Dakigunok ekarpena egitea logikoago iruditzen zait".

Dirua biltzeko lanean ari dira gaur egun. Eta jakina, "dena eginda dugunean Nafarroako Gobernuari erreklamazioa eginen diogu. Gutunak idazten eta tramiteak egiten hasiak gara. Nafarroako Gobernuaren atean joko dugu, Memoria Historikoaren Legea indarrean jar dezaten. Lagundu gaitzala gorpuzkin horiei izen-abizenak jartzen. Baina, antza, badirudi ez dela hildako horien izena jakitea interesatzen".

Altsasuarrak nabarmendu duenez, "hamar hildako zeuden leze bateko bederatzi identifikatzea itzela litzateke. Falta dena identifikatzeko ikerketa lana egiten segitu beharko genuke. Halakorik beste inon lortu den ez dakit. Arazoa ekonomikoa da, ikerketa lana egina baitago. Balbinok eta biok Aranzadiri dugun dokumentazio guztia eman diogu, DNA probak egin eta identifikatzea lortu ahal izateko".

DNA probak egiteko lezean ustez hildakoen senideen bilaketan aritu da Amaia. "ez zeudela uste nuenekin ere topo egin dut. DNA proba egiteko prest eta zain dauden familiak ditugu".

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

GRUPO
Funeraria VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan BEILATOKIA eta ERRAUSTOKIA
www.funerariavascongada.com
24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Pabiloi bat alokagai edo salgai Altsasuko Ondarria industrialdean. 140m2 ditu solairuak, 60m2 solairuarteak, bulegoak eta komunek polipastoa dute. Mantenimendua eta metalezko errementaria lanak egiteko prestatua. TI 649 44 35 91.

Urdiaingo Kaluxa jatetxea alokatzen da. TI 680 87 10 18 eta 948 46 92 91.

Arraindegi bat eskualdatzen da. Goierrin. Lanean eta errentagarria. Kuxkuxerorik ez, mesedez. Interesatuek hots egin telefono honetara: 635 75 83 74.

Ikastaroak

Belaundaldietan zeharreko terapia. Irakaslea: Jesus Garcia Paria, zenbakien bidezko sendatzailea. Altsasuko San Pedroko bidea 25 landaetxean, otsailaren 22an, igandean, 9:30etatik 20:30etara. Erreserbak Valen (650 02 36 98). Bazkaria 15 €, mantenu osoa 50€. Ez ahaztu USBa ekartzen.

Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazak. Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazak betetzeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonoan.

Lehiaketa

Erromantzatuaren koloreak. Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatu da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa www.restauranteromanzado.com

Oharrak

Odol-emaileak. Otsailaren 24an, 25ean eta 26an Altsasun arratsaldez; 27an Altsasun goizez

Ekintzaileei bultzada. Nafarroako Gobernuak sustatutako programa baten bidez zortzi enpresa proiektu aukeratu, bultzada programa batean sartu eta laguntza ekonomikoa emanen zaie. Eskaerak martxoaren 10era arte. Informazioa www.cein.es

Etxarriko irakurle taldea. Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburuaz ariko dira martxoaren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

Axio, Jose Ignacio Floresi buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza. Eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrontean edo www.karena.eu plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago www.axioflores.com

Zozketa. Jaiotzazaleen zozketa: 479 zk.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu Ielopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik.
Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

JAIOTZAK

- **Euken Garziandia Pazos,** otsailaren 3an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Feliciana Lizarraga Igoa,** ilbeltzaren 29an Etxarri Aranatzen.
- **Maria Cruz Fernandez Arregi,** otsailaren 3an Ziordian.
- **Vitorino Lanz Galarza,** otsailaren 4an Iturmendin.
- **Julia Zubiria Ostiza,** otsailaren 5ean Urdiainen.
- **Luciano Razkin Lizarraga,** otsailaren 6an Dorraon.
- **Juan Antonio Egea Egea,** otsailaren 8an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, asteartetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

TXIRRINDULARITZA

ERBITI QATARREN: Otsailaren 8an hasi eta gaur despedituko da Qatarreko Tourra. Movistar Team taldearekin lehiatzen ari da Hiriberriko Imanol Erbiti. Atzoko emaitzen faltan, asteazkenean 65.a zen Hiriberrikoa, 8:58ra.

kirola >>

Areto futbola

Magna garaipenaren xendara itzuli da

4-1 irabazi zion Burelari eta Carlitosek hat tricka lortu zuen

Ligako oilarren kontrako azken partidetan galdu eta gero, Magna Nafarroa Xotak garaipena lortu zuen ostiralean etxean, Galiziako Burela taldearen kontra. 4-1 irabazi zuen Magnak eta golak oraindik ere askoz gehiago izan ahalko ziren, Burelako Alex atezainak sekulako geldialdiak egin ez balitu. Bera izan zen partidako onena. Carlitosek hat tricka lortu zuen, 3 gol sartuta. Merezitako garaipenarekin, Peñiscolaren kontrako partidan dute burua orain Imanol Arregiren mutilek.

PEÑISCOLAREN KONTRA 7. POSTUARI EUSTEA ERRONKA

Inter Movistar da lehen mailako areto futboleko liderra (54 puntu), Bartzelonari puntu bat eta El Pozori hiru aterata. Magna Nafarroa Xota 7.a da (33 puntu). Asteburuan sailkapenean puntu bat gutxiagorekin bere azpian dagoen Peñiscola taldearen kontra jokatuko du Magnak, larunbatean, 18:00etan, Peñiscolan. Hortaz, 7. postuari eustea dute jokoan Imanol Arregiren mutilek. Ea lortzen duten.

Pilota

Sakandarrak puntan

Nahiz eta derbian Ezkurdia-Zabaletak Berasaluze-Zubietaren kontra galdu, bi sakandarrek jarraitzen dute buruan (7 puntu), Berasaluze II-Zubieta (6 puntu), Artola-Albisu (5 puntu) eta Irujo-Barriola (5 puntu) gertu dituztela

Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak Binakako hasierako ligaxkako euren lehendabiziko partida galdu zuten, Berasaluzeren eta Aitor Zubietaren kontra. Etxarrendarra ez zen batere eroso aritu Urdulizeko frontoian eta akats ugari egin zituen, jokoan 11 akats, guztira. Egun txarra izan zuen Zabaletak eta hor egon zen partida galtzearen gakoa. Zubieta, aldiz, ongi egokitu zen. Ongi jo zuen, defentsan sendo aritu zen eta pilota ongi kokatu zuen. Hori bikain etorri zitzaion Berasaluzeri eta 22-15 gailendu ziren Asegarcekoak.

Berehala errenta ederra lortu zuten Berasaluzek eta Zubietak (16-6). Baina Ezkurdiak tantoa egin, pilota azkarragoa atera eta Aspeko sakandarrek 7 tanto egin zituzten segidan, 17-14 gerturatuz. Arbizuarrak arriskatu zuen, tantoa galdu eta hortik aurrera atzera ere dominatzera pasa ziren Berasaluze eta Zubieta, garaipena lortu arte. "Urdulizeko frontoia oso hotza da, erramintakoa, eta ez genuen bertara egokitzen jakin. Partidan sartzea kosta egin zitzaigun, eta konturatzerako beranduegi zen. Lehenbailehen ahaztu beharreko kontua da" azaldu zuen Ezkurdiak.

Zubietak ez daki nor izango duen arerio

Ezkurdia eta Zabaleta liderrak sekulako erakustaldiak ematetik datozen Irujo eta Barriolaren kontra jokatzekoak ziren larunbatean Ogetan, baina Irujok ezker eskuan mina du eta Altuna III.ak hartuko du bere tokia." Finalerdietara sailkatzeko zenbat garaipen behar ditugunarekin ez dugu itsutu behar; disfrutatzera atera behar dugu, aurrera egiteko aldea baitugu"azaldu zuen Ezkurdiak asteazkeneko pilota aukeraketan. "Pilotari abiadura eman beharko diogu, eta partidaren erritmoa eraman. Bestela, Altuna errematera sartuko da eta aurrelari oso arriskutsua da. Atzean ere asko lan egin beharko dugu, Abel dagoelako" ondorioztatu zuen Ezkurdiak. Ea zortzigarren garaipena lortzen duten.

Bestalde, txapelketa bikaina egiten ari diren Berasaluzek eta Zubietak igandean Olaizola ordezkatuko duen Urrutikoetxearen kontra jokatuko dute igandean Bilbon. Guaixe ixteraoan oraindik ez genekien nor ariko zen Beroizen partez, uhartearra arazoekin baitago. "Ez dakit noren kontra jokatuko dugun, baina datorrena datorrela arerio gogorra izango da. Ez dugu partida errazik espero; partida serio bat planteatu behar dugu eta orain arte bezala lan egin beharko dugu. Gainera, Urrutikoetxea ongi dago, txisparekin, eta partida zaila izango da" azaldu zuen Zubietak material aukeraketan. Nahiz eta finalerdietara sailkatzeko aukera asko izan, etxarriarrak uste du oraindik denetatik gertatu daitekeela. "Garaipenetik porrotera pausu bat dago eta gerta daiteke goian gaudenok huts egiten hastea eta behekoek gora egitea. Edozer gerta daiteke baino espero dezagun guk eustea. Bi puntu behar ditugu eta horiek lortzen saiatu behar dugu" nabarmendu zuen.

Sailkapena:

1.	Ezkurdia-Zabaleta	7 puntu
2.	Berasaluze II-Zubieta	6 puntu
3.	Artola-Albisu	5 puntu
4.	Irujo-Barriola	5 puntu
5.	Bengoetxea VI-Aretxabaleta	4 puntu
6.	Xala-Merino II	2 puntu
7.	Retegi Bi-Rezusta	2 puntu
8.	Olaizola II-Beroiz	1 puntu

9. jardunaldia

Altuna III.a-Barriola / Ezkurdia-Zabaleta (larunbatean, 17:30ean, Gasteizen. Lasexta)
Berasaluze II-Zubieta / Urrutikoetxea-Beroiz (Igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)
Bengoetxea VI-Aretxabaleta / Artola-Albisu (Astelehenean, 16:30ean, Tolosan)
Xala-Merino II / Retegi Bi-Rezusta (Asteartean, 16:30ean, Tolosan)

Txirrindularitza

Azanzaren Euskadi-EDP taldea aurkeztu dute

19 txirrindulari izango ditu, amateur mailan lehiatuko da eta ostiralean aurkeztu zuen bere burua taldeak, Bilboko Guggenheim Museoan

Migel Madariagaren Euskadi Fundazioa 21 urte elitean egon ondoren, aurten elite mailan eta 23 urtez azpiko afizionatuen mailan lehiatuko da. Amateur taldean 19 txirrindulari ariko dira Gorka Gerrikagoitia eta Jorge Azanza zuzendarien esanetara eta aurreko ostiralean egin zuten aurkezpena, Guggenheim Museoan, Juan Mari Guajardo altsasuarrak eta Arritxu Iribarrek aurkeztuta. Ibilbide berriarekin kontentu dago Euskalteleko txirrindulari ohi altsasuarra. "Aurre denboraldiko lana bukatzear dugu eta asteburuan Frantzian debutatzeko gogo izugarriekin nago. Taldea batuta dago, hasieratik dena emateko prest" nabarmendu du Azanzak.

Proiektu berritzailea

Talde kontinentalak 500.000 euroko aurrekontua zuen eta Euskadi Fundazioak aurten egitasmoa alde batera uztea erabaki du, talde amateurrean aritzeko. 350.000 euroko aurrekontua izango du. "Euskadi Fundazioak oinarri oso sendoa du, bizirik dago eta momentuz afizionatuetan ariko gara. Hala ere, gure proiektua berritzailea eta ezberdina izango da. Txirrindulariak trebatuko ditugu, profesionaletara ongi trebatuta pasatzeko. Horretarako Gorka Gerrikagoitia, Jorge Azanza, Iñaki Isasi eta halako jendea behar duzu, txirrindulari bakoitza zein lasterketetara eraman ongi jakingo dutenak, profesionaletara pasatzen direnean nora doazen eta zertara, eurengandik ongi ikasia izango dutenak. Espero dugu bi urtetan bi pausu aurrera egin ahal izatea, Euskadin kontinental mailako bi talde eta talde kontinental profesionala egotea beharrezkoa baita" adierazi zuen Madariaga managerrak.

Euskadi-EDP afizionatuen taldea

Euskadi-EDP taldeak Frantzia eta Espainiako estatuetako eta Portugaleko hainbat itzulitan ariko da, Euskal Herriko afizionatuen egutegiko probetaz gain. Espainiako Kopan parte hartuko du.
Txirrindulariak: Illart Zuazubiskar, Mikel Aristi, Mikel Iturria, Egoitz Fernandez, Ander Plazaola, Iosu Angoitia, Ander Etxebarria, Oscar Gonzalez, Jon Irisarri, Francisco Javier Martin, Eder Saez de Ocariz, Xabier San Sebastian, Mikel Alonso, Ibai Azurmendi, Marc Buades, Yeray Domingez, Gotzon Martín, Paul Ormaetxea eta Cyril Barthe.
Zuzendariak: Gorka Gerrikagoitia eta Jorge Azanza.

Pilota

Sakandarrak ongi

Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketako 5. jardunaldia jokatu da. A multzoan, banakakoan Oberenako Etchegoinek Irurtzungo Mattin Ezkurdia hartu zuen menpean (10-6 eta 10-9). Aldiz, binakakoan Irurtzungo Ongayk eta Irañetak 6-10 eta 9-10 irabazi zieten Mayansi eta Larrayari. B multzoan Altsasuk bi partidak irabazi zizkion San Migeli. Beitiak Aznarez hartu zuen menpean (9-10, 10-5 eta 3-5), eta Azpiri eta Peñas Plazaren eta Lanaren gainetik pasa ziren (4-10 eta 2-10).

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Txalaparta
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua
Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA
Elkargokide-zk.: N-0806
Ezer, ezin dela egin
pentsatzen dugunean,
hori bete egiten da,
ezer ezin da egin.
Racso
Hori da zuk nahi duzuna?
Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

Maitasunez opariTxi!
Txikito
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

Kin-Ball

Kin-Ball Atakondoan

Nola jolasten da Kin-Ballera?

Kin-Ball jokatzeko 4 pertsonaz osatutako 3 talde behar dira, talde mistoak badira hobe, laukizuzen formako aretoan. Eta jakina, kin-ball baloi erraldoia, 122 zentimetroko diametroa duena. Markagailua ere berezia da, hiru taldek parte hartzen dutelako. Taldeen helburua ahalik eta puntu gehien pilatzea da, eta puntuak gainontzeko taldeek falta egiten dutenean lortzen dira.

Baloiaren jabetza duen taldeak erabakitzen du zein talderi jaurtiki-ko dion baloia, eta aurretik berari jaurtiki behar diola esango dio. "Omnikin arroxa" esango du talde arroxari bota behar badio. Eta nahiz eta baloia gora edo horizontalean jaurtiki, baloia lurrera ertzeko helburuarekin jaurtikiko du. Jakina, beste taldeak baloia lurrera joatea ekidin beharko du eta baloia kontrolatzen saiatuko da. Baloiak lurra jotzen badu, baloia jaurtiki duen taldeak eta euren txanda itxoiten dagoen beste taldeak puntu bana lortuko dute. Aldiz, taldeak baloia kontrolatzen badu, erasotzaile izatera pasako da, eta 10 segundoko tartea izango du baloia aukeratzen duen taldeari jaurtitzeko, hori bai, taldeari aurretik abisatuta. Araudiak dioenez, puntu gehien duen taldeari bota behar zaio baloia, beti. Estrategiaz betetako jokoa da.

Talde batek baloia jaurti ahal izateko, talde horretako jokalari guztiak baloiarekin kontaktuan egon beharko dute, baloia eutsi, finean. Normalean, hiru jokalarik baloi erraldoia eutsiko dute eta laugarrenak kolpatuko du. 13 puntu lortzen dituen lehen taldeak "periodo" delako bat lortuko du, eta 3 periodo lortzen dituen taldeak irabaziko du partida.

Kin-Balla eskolaz kanpoko jarduera bilakatu nahi dute

Hirugarren hiruhilabetekoan talde mistoen arteko barne txapelketa bat antolatu nahi dute Atakondoan. "Neska-mutikoak kirol honetara engantxatzea nahi dugu. DBHkoak hurrengo ikasturtean Iruñeko Biurdanara joango dira eta bertan Kin-Ball eskaini daitekeen aztertzen ari gara. Izan ere, Kin-Ball harrobia sortu nahi dugu, etorkizunean taldeak sortu eta Nafarroan ligaxka antzeko bat antolatzea posible izateko. Gaur egun, Atakondoa ikastetxeaz gain, San Juan de la Cadenan, Ermitagañan eta Jose Maria Huarte ikastetxeetan lantzen dute Kin-Balla. Ea posible den. Egun ez dago Kin-Balla egiten duen talde heldurik eta ea gutxinaka bidea egiten dugun". Kin-Balla hedatzea nahiko luke Iznaolak, hurrengo ikasturtean Irurtzunen eskolaz kanpoko jarduera izatea. Horretarako lanean daude.

Kooperazioa, hezkidetza, integrazioa, joko garbia eta biolentziaren gaitzespena baloreak lantzen dituen kirolarekin poz-pozik daude ikasleak

Irurtzungo Atakondoa ikastetxean Kin-Ballean aritzen dira. Aipatu modalitatea Mario Demers soin heziketa irakasleak asmatu zuen Kanadan 80. hamarkadan eta helburu nagusia ikasleak baloreetan heztea da. Ondoko baloreak lantzen dira: kooperazioa, hezkidetza, integrazioa, joko garbia, emakumeen parte-hartzea eta biolentziaren gaitzespena. Eta horretaz gain, joko arin eta dibertigarria da.

Atakondoan soin heziketa irakasten 5 urte daramatza jatorriz Jaengoa eta Iruñeko bizilaguna den Manuel Iznaola. "Atakondoara iritsi nintzenean Kin-Ball jokatzeko materiala bazegoen jada. Nire lankide Xabi Lizeagak berrikuntzak gustuko ditu, eta materiala lortu zuen. Horrela, gure klaseetan Kin-Ball kirola lantzen hasi ginen duela lau urte. Baina araudiari inguruko zalantzak genituen. Interneteko azalpenak ez ziren nahikoa eta Espainiako Kin-Ball Sport Elkartearekin (AEKBS) jarri ginen harremanetan. Eurek Kin-Balla sustatu nahi zuten eta hona etorri ziren orain dela bi hilabete. Atakondoan, Iruñean, Gasteizen... egon ziren" azaldu digu Iznaolak. Elkartekoek araudi guztia zehatz eta mehatz azaldu zieten Atakondoakoei, eta, horretaz gain, Nafarroako hainbat ikastetxetako irakasleei kirolari buruzko formazioa eskaini zieten.

Dena onurak

Iznaolak onurak besterik ez dizkio ikusten Kin-Ball kirolari. "Lehiakortasun handiko kirolak gustuko ez dituzten neska-mutikoendako kirol erakargarria da hau. Futbola, saskibaloia eta halako kiroletan bere tokia aurkitzen ez dutenek Kin-Ballean aurkitzen dute. Eta baita neskek ere. Izan ere, talde kirola da. Talde guztiak batera lan egin behar du, pertsona batek bakarrik ezin baitu baloi erraldoia mugitu eta jokaldirik egin. Gainera, guztiek parte hartzen dute, guztiek jaurtiki behar dute baloia" gaineratzen du Iznaolak. "3 talde lehiatzen dira: beltza, arraza guztien parte hartzea edo integrazioa azaldu nahi du, grisa, herri guztien batasuna adierazi nahi du, eta arrosa, emakumeen parte-hartzearen balorea adierazi nahi du" dio irakasleak.

Guztiak dira garrantzizko

Atakondoan Kin-Balla unitate didaktiko moduan lantzen dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak eta Derrigorrezko Bigarren Mailakoak. Baloiarekin kontaktua izan eta gero partidak egiten dituzte, 5 saio ingurutan. Iznaolak dio ikasleek oso gustuko duten kirola dela. "Arauen errespetua horren handia da inor ez dela kexatzen. Ez dago keinu txarrik. Erabateko talde lana da. Kirol honek engantxatzen du jokalari guztiak sentitzen direlako garrantzitsu, inor ez baita nabarmentzen. Batek bakarrik ezin du baloia kontrolatu, laguntza behar du, eta inork ezin du pasibo egon" azpimarratzen du.

Areto futbola

Futsalsakana: Bunker, Racing eta Arbizu buruan

12. jardunaldiko emaitzak:

Iturmendi **2** – Arbizu K.T **6**
Bunker **3** – Arbizu harrobia **0**
Back Street Boys **0** – Auzomotojorik **3**
Racing San Migel **7** – Hijos de perla **2**

Futsalsakana Txapelketako asteburu honetako jardunaldiak ez du aparteko sorpresarik ekarri. Ostiralean Arbizu Harrobia ez zen jokatzera aurkeztu eta, hortaz, Bunkerri eman zitzaion garaipena (3-0). Gauza bera gertatu zen larunbatean. Back Street Boys talde altsasuarra ez zen kantxan azaldu eta Auzomotojorik talde etxarriarrari eman zitzaizkion jokoan zeuden 3 puntuak (3-0). Bestalde, Racing San Migel taldeak gol sorta ederra sartu zion Hijos de perlari, 7-2 gailendu baitziren uhartearrak. Eta Iturmendiri 6-2 irabazi zion Arbizuk.

Jardunaldirik ez

Bunker da lider (24 puntu). Puntu batera dago Racing San Migel (23 puntu) eta bi puntura Arbizu K.T. (22 puntu). Hortaz, lidergoa estu-estu dago. Hijos de perla da 4.a (16 puntu), Auzomotojorik 5.a (12 puntu), Arbizu harrobia 6.a (9 puntu), Back Street Boys 7.a (9 puntu) eta Iturmendi 8.a (3 puntu).

Inauteriak direla eta, asteburu honetan atsedenaldia hartuko du Futsalsakana Txapelketak. Hurrengo jardunaldia otsailaren 20an eta 21ean jokatuko da.

Xotak Minifutsal cup Iruñea txapelketa antolatu du

Irurtzungo Xota klubak, Iruñeko Udalak eta Estatuko Kirol-Kontseilu Gorenak Minifutsal Cup Iruñea areto futbol txapelketa antolatu dute. Otsailaren 28an eta martxoaren 1ean jokatuko da, Iruñeko Antoniutti parkean, 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. 7-12 urte bitarteko neska-mutikoek osatutako taldeek eman dezakete izena. Informazioa: www.minifutsalcup.es

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

20. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA – GARES (atzeratuta)
Preferenteko I. Multzoan 20. jardunaldian jokatu beharreko 8 partidetatik hiru atzeratu egin dira, tartean Lagun Arteak eta Garesek jokatu beharrekoa. Bi partida atzeratuak ditu Lakuntzako taldeak.

Sailkapena >>

1. Mendi ..... **47 p**
12. Lagun Artea ..... **19 p**

Asteburuko jardunaldia

AGOITZ – LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 17:00etan, Agoitzen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

20. JARDUNALDIA

SALESIANOS 1 – ETXARRI ARANATZ 1
BERRIOZAR - ALTSASU (atzeratuta)
Asteburuan erregional mailan 20. jardunaldia jokatu zen. 12 partida atzeratu ziren elurrarengatik eta beste arrazoiengatik. Tartean dago Berriozarrek eta Altsasuk jokatu behar zutena. Etxarri Aranatz liderrak Salesianos taldearen kontra jokatu zuen Iruñean. Haize gogorrak eta hotzak zeharo baldintzatu zuten partida, eta lehen tartean ez zen egon, apenas, gol aukera aipagarririk. 31. minutuan Goienetxek Salesianosek partidako lehen gola sartu zuen eta horrela joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian Salesianos Etxarri ixten saiatu zen, baina gutxinaka etxarriarrak arriskua sortzen hasi ziren eta nahiz eta 10 jokalarirekin geratu, bukaerarako 10 minutu falta zirenean partida berdintzea lortu zuen Javierrek. Salesianos saiatu zen, baina Etxarriko Ivan atezainak saiakera guztiak gelditu zituen.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz ..... **44 p**
6. Altsasu ..... **31 p**

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ – SAN JORGE
(Igandean, 16:00etan, San Donato zelaian)
ALTSASU – ARDOI B
(Igandean, 16:15ean, Dantzalekun)

Futbola

Kimuen Futbol 8 Topaketak bueltan

Atsedenaldiaren ondoren, txapelketako 12. Jardunaldia jokatuko da igandean Altsasun

Santa Agedako atsedenaldiaren ondoren, Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 12. jardunaldia jokatuko da igandean Altsasuko Dantzalekun. 10 talde lehiatzen ari dira txapelketa moduan jokatzen den topaketan. Helburua txikienengan kirola eta futbola sustatzea da, eta horregatik ez da sailkapenik egiten.

12. jardunaldia

igandean, Altsasuko Dantzalekun
10:30ean: Urdiain – Kaixo
11:30ean: Tipi Tapa – Sutegi
11:30ean: Lagun Artea – Sayas
12:30ean: Txartel – Dantzaleku
12:30ean: Mediolanum – Arbizu

Nonerabili

PINPILINPAUSA
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU
IRUÑEA
Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER
OLAZTI
Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA
ALTSASU
50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan.

BERRIA EGUNKARIA
Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA
ETXARRI ARANATZ
% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR
ALTSASU
Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA
ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK
ETXARRI ARANATZ
50 €ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Ihote eta mozorro festen garaia da

Sakana inauterietan murgilduko da

Irañetan larunbatean ospatu ziren inauteriak

Txikiek goiz partetik parte hartu zuten festan. Inauteritarako girotzeko, Santa Ageda bezperan, emakume irintar batek ibarreko eta Irañetako inauteriei eta haien pertsonaiei buruzko bideo emanaldia izan zen.

IRURTZUN

Mozorroak ez kentzeko asteburua

Txikiek emanen diote hasiera ihote ospakizunei gaur eta, bihar, segida emanen diete. Asteartean, bestalde, Irurtzungo bizilagun berriek euren herrialdeetan inauteriak nola ospatzen diren azalduko dute liburutegian.

>> Otsailak 13, ostirala
10:15ean Mozorroen desfilea, hamaiketakoa, kalejira Irurtzunen barna eta Marigorri erretzea eskolan.
17:30ean Makillaje tailerra, liburutegian. 19:00etan Triki-poteoa Barazki plazatik, hasita. Otamena Larrazpin (IAGA).
23:00etan Kontzertuak, Larrazpin: Nafarroa 1512, Sykorax eta The Guilty Brigade.

>> Otsailak 14, larunbata
12:00etan Irurtzungo Joaldunak eta pertsonaia mitologikoa. Iskidi.
14:00etan Bazkaria jubilatuen elkartean. Ondoren dantzaldia.
14:30ean Inauteriko herri bazkaria, eskoletako jantokian.
16:00etan Inauteriko herri kalejira, eskolatik. Sakaranga txaranga.
17:30ean Mozorrotutako pertsonen eta koadrilen kontzentrazioa, plazan.
18:00etan Inauteri desfilea, plazan.
19:00etan Musika eta herri txistorra-jatea.
21:00etan Larrazpitek jaialdia, Larrazpin.

>> Otsailak 15, igandea
19:30ean Amico dantza-antzerkia, kultur etxean.

>> Otsailak 17, asteartea
17:30ean Munduko inauteriak. Azalpena liburutegian.

UHARTE ARAKIL

Mozorro festa larunbat goizetik

Kinto ospakizunekin bat egiten dute inauteriek Uharte Arakilen. Mozorrotuen eguna biharkoa izanen da. Aurten, goiz goizetik murgilduko dira uhartearrak inauterietan. Goizean gosaltzera bilduko dira koadrila batzuk, eta eguerdi aldera buelta emango diote herriari trikitixen laguntzarekin. Ondoren, mozorrotuak Aralar Mendi elkartean eta beste hainbat tokitan bilduko dira bazkaltzeko, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, 17:30ak aldera kalejira koloretsua abiatuko da handik, musika lagun, herria zeharkatuko duena. Egonen da propio prestatutako karrorik. Kalejiraren ondoren, ihoteetako panpiñari su emango zaio eta haurrendako txokolatada egongo da plazan, eta parrandak ordu txikiak arte segituko du.

ARRUAZU

Haurrak nagusi

Etxeko txikienak izanen dira Arbazuko moxorroen protagonistak. Haien mozorroekin igandean, 17:00ak aldera, plazara aterako dira. Moxorroak ez dira faltako; herri ihoteko Arruazuko pertsonaiak dira, burua estalita eta zigorra eskuan, jendea berotu nahian ibiliko dira. Etxez etxe egindako errondan bildutako jaki eta diruarekin, txikiek Itur-Gain elkartean merienda ederra eginen dute.

LAKUNTZA

Bihar mozorro festa, asteartean zatamarroek hartuko dituzte kaleak

Larunbatean mozorro festa antolatu dute Lakuntzan eta parranda egiteko aukera ederra izanen da. Ihote giroak jarraipena izanen du asteartean. Etxeko txikienak mozorrotuko dira eta eguneko protagonistak, zatamarroak, aterako dira kalera. Soinean arropa eta zaku zaharrak jantzita, aurpegia zapi batekin estalita, buruan lastozko txapela eta eskuan erratza, sardea edo hurritz makila dutela, jendearen atzetik ibiliko dira, izutu eta haiek berotzeko asmoz. Haiek zirikatzeko "Zatamarro begi-gorri urtien behin etorri" kantatuko diete haurrek.

>> Otsailak 14, larunbata
14:30ean Bazkari herrikoia Kultur Etxean. (Txartelak Gure Nahia elkartean salgai. Helduek 15 euro eta haurrek 7 euro).
17:30ean Karaokea eta dantzaldia.

>> Martxoak 4, asteartea
18:00etan Txokolatada plazan, musikaz girotua (Eguraldi txarra eginez gero, Kultur Etxean).
Zatamarroak herrian barna. Kontuz ibili!

ARBIZU

Larunbatean "10 urte eta kitto" eta asteartean Aittun handiya eta Amiñ txikiya

Arbizuarrek bi egunetan ospatzen dituzte ihoteak. Aurten mozorro egunak 10 urte beteko ditu eta horregatik "10 urte eta kitto!" lelopean ospatuko dute mozorro eguna larunbatean. Giroa berotzeko 12:00etan aatea izango da. 12:30ak inguruan yoga klasetan dabiltzanek bi koreografia eskainiko dituzte, eta ondoren mozorro desfilearen txanda izango da. Koadrilak are gehiago animatzeko, aurten hobekien mozorrotutako koadrilak 100 euroko saria jasoko du, eta banaka hobekien mozorrotuko denak 50 euroko saria. 15:00etan herri bazkaria eginen da Aldabide elkartean. Jai giroarekin jarraitzeko, Argi Bidea elkartean musika egonen da, 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 02:00etara.
Bestalde, asteartean txatarren egunaospatuko dute. Goizeko 11:00etan herriko gazteak eta haurrak pixkeet eskien aterako dira trikitixarekin. Arratsaldean, 17:00etan haurrendako jokoak eta jolasak egongo dira. 19:00etan txistorra jatea eginen da herriko plazan eta 20:00etan Arbizuko iyoteetako protagonista Aittun haundiya eta Amiñ txikiya erreko dituzte plazan. Txatarras janzteko deia egin dute antolatzaileek. Eguna agurtzeko, 21:30ean Aldabide elkartean herri afaria antolatu dute, kintoek prestatuko dutena.

UNANU

Igandean eta asteartean, badatoz Mamuxarroak!

Unanuko mamuxarroak eta Muttua aski ezagunak dira. Igandean eta asteartean aterako dira Unanuko kaleetara (Ikus Guaixeko 11 galderak).

LIZARRAGA

Denok ihoteez gozatzera!

Bihar, larunbatarekin, ihoteetan murgilduko dira lizarragatarrak. Lehen, herrian eskola zegoen garaian, haurrak mozorratu eta eskean ibiltzen ziren Lizarragan, baina ohitura galdu zen, eta duela gutxi berreskuratu zuten ospakizuna, arrakasta handiz. Horrela, bihar eguerdian haur, gazte eta heldu guztiak mozorrotuko dira. Azi Iturri elkartean bapo bazkaldu, eta arratsaldean herrian barna eskean ibiliko dira mozorrotutako lizarragatarrak, musika lagun. Etxeetan eskean jasotakoarekin, gainera, afaria eginen dute atzera ere elkartean.

ETXARRI ARANATZ

Zalduniyote eta astearteiyote

Garizumako aurreko hiru ostegunetan ihote ospakizunak izan dira Etxarri Aranatzen: Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde ospatu dira. Ihoteak igandeko zalduniyoterekin eta astearteiyoterekin despedituko dira. Igandean haurrak izango dira protagonista eta astearte an etxarriar guztiak eta kintoak.

>> Otsailak 15, igandea.

Zalduniyote: Haurrak txatarras mozorratzeko eguna

Herriko elkarteetatik txatar ibilbidea.
16:30ean Karrikestu elkartean emanen zaio hasiera herriko elkarteetatik barna egingo den txatar ibilbideari.

>> Otsailak 17, asteartea.

Astearteiyote

10:00etatik 14:30era Herrian zehar Txurrutxiki txarangarekin kalejira, kintoen eskutik.
12:00etan Rum-rum rock, haurrendako animazioa.
13:30ean Txarangarekin kontzertua plazan.
14:30ean Bazkari herrikoia Karrikestu elkartean.
17:30ean Txokolatada.
17:00etatik 19:30era Txurrutxiki txarangarekin kalejira herrian zehar.
18:00etatik 22:00etara Dantzaldia Orots taldearekin.

(Eguraldiaren arabera, ekitaldiak plazan edo pilotalekuan izanen dira.)
* Goizetik hasita mozorratu eta ongi pasatzeko deia egin du iyote batzordeak.

BAKAIKU

Larunbatean kamarroak eta asteartean txikienak

Bakarrekoetxea elkartean bihar eginen den bazkariarekin hasiko dira ihote ospakizunak, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, Bakaikuko Gazte Asanbladak kamarroz janzteko deiari erantzun diotenek euren transformazioa hasiko dute. Behin kamarro beldurgarriz jantzita, 18:00ak aldera etxez etxeko erronda eginen du segizioak, lehen lehenik trenbide aldera jaitsiz. Musika lagun, kamarroekin batera gurdia, golda eta suko hautsa barratuko dutenak izanen dira. Errondak parrandari emanen dio segida.
Asteartean, Bakaikuko gurasoek antolatuta, haurren ihotea ospatuko da. Eguerdirako mozorrotuta egonen dira bakaikuar txikiak. Jantziak lagun, jolasten ariko dira. Ondoren elkartean bazkalduko dute. Santa Ageda kantuan eta eskean bildutakoarekin ordaintzen da bazkaria. Arratsaldean, kalejira koloretsuak zeharkatuko du Bakaiku, plazan despedituko dena, txokolate beroa edanez.

ITURMENDI

Igandean mozorrotuen kalejira

Iturmendin domeka dute inauterietako egun nagusia. 17:00etatik aurrera mozorroen kalejira izanen da, buruhandiekin, eta festarekin bat eginen dute herritar guztiek. Haurren gozamenerako, urtero bezala, kalejiran parte hartuko du dragoi miragarriak. Mozorro giroan, iturmendiarrek buelta emanen diote herriari. Festa borobiltzeko, 18:00etan txokolatada eginen dute frontoian. Eguraldiak laguntzen ez badu Aritzaga elkartean babestuko dira.
Asteartean ihote giroak jarraipena izanen du Aitzkozar elkartean. 19:00ak aldera jitomotxorroen kalejira zaratsua eginen dute herrian barna, eta, ondoren, Aitzkozar elkarteko beroan elkartuko dira afaltzera.

URDIAIN

Mantaguna, momoxarro txikiak eta handiak

Larunbatean Mantaguna ospatuko da Urdiainen, ihoteei hasiera emanez. Arpilerazko mantak edo zakuak soinean jantzita, ikusi ahal izateko bi zulo eginda, inguruan dituztenak zirikatu eta berotuko dituzte mozorrotuek. "Mantaguna guna, guna, guna, zakuan kunkuna" kantatuko diete.
Domekan momoxarro txikien txanda izanen da. Iluntzen duenetik, aurrera eta atzera ibiliko dira momoxarro txikiak, jendearen atzetik, haiek berotzeko asmoz. Horretaz gain, mozorro ezberdinez jantzita egongo dira txikienak. 20:00etan txokolatada izanen da Urdiaingo plazan, eta eguraldi txarra eginez gero, frontoian.
Momoxarro handien eguna astearte arratsaldekoa da. Momoxarroek korrikaldi ederrak eginaraziko dizkiete 18:00etatik aurrera, iluntzen duenetik aurrera, kooperatiba parean bilduko direnei. "Momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero" kantatuko diete. Bestalde, sorgin afaririk ere izanen da asteartean.
Momoxarroak, bai txikiak bai handiak, goitik behera janzten dira, aurpegia bera ere estaliz. Hainbat itxura har dezakete: ardi-narruak dituzte batzuek, buruan txano konikoa jantziko dute besteek, oheestalkiak, farak eta beste. Arratsalde osoa mozorrotuta egon eta gero, 20:00etan aurpegiko tapakiak kentzea da ohitura.

ALTSASU

Momotxorroak eta askoz ere gehiago

Asteburuan hasiko du Altsasuk bere ihote zikloa, inauteri txikiak, herri-inauteriak eta piñatak osatzen dutena. Aurretik hainbat ekimenek ihoteak bertan direla adierazi dute. Esaterako, ikastetxeetan eta Intxostia puntan egin diren momotxorroen dantzen entseguak edota asteartean kultur gunean zabalduta ko marrazki erakusketa, hilaren 20ra arte ikusgai izanen dena.
Ihote ospakizunak hasi aurretik, bihar gazte gunean inauteriei buruzko hitzaldia emanen dute ihote batzordeko kideek. Bestalde, astearteko herri-bazkarira joan nahi dutenek ohiko tokitan eros ditzakete txartelak, zortzi eurotan.
Astearteko herri ihoteko segizioa osatuko duten pertsonaiak honakoak dira: momotxorroak, ereintza, juan-tranposoak, maskaritak, akerrak eta sorginak, ezkontza eta matxin gaiztoak.

>> Otsailak 15, domeka.

Inauteri txikia.

17:30ean Haurren maskarada foru plazan. Txokolate-jana eta mozorro festa Big Band Bum taldearekin.
22:30ean Zezensuzkoa.

>> Otsailak 17, asteartea. Herri inauteria.

14:30ean Herri bazkaria, Burunda pilotalekuan.
16:30ean Puska biltzea, Alde Zaharrean.
16:30ean Momotxorro txikien elkarretaratzea eta txokolate-jana Zumalakarregi plazan.
17:00etan Momotxorro txikien irteera, Agoizko burrunbak, Txorongo txarangak, Musika Eskolako dantzari eta fanfarreak eta hankaluzeek girotuta.
17:30ean Herri askaria bildutako puskekin, Gure Etxean.
18:00etan Momotxorro txikien dantza, Foru plazan. Ondoren, momonzuskoa.
18:45 Odolaren erritoa eta herri inauteriko elkarretaratzea, Zelandi pilotalekuan.
19:00etan Dantzaldia Gaubela taldearekin, Foru plazan.
19:30ean Herri inauteriaren irteera Zelanditik, Txorongo txaranga, Musika Eskolako eta Zangitu fanfarreak, Altsasuko txistulari eta gaitajolea eta Agoizko Burrunbaz lagunduta. Momotxorroen dantza: Isidoro Melero, San Juan, Bakea, Egubera, Ferialde eta Gartzia Ximenez kaleetan.
Aguraingo Jaiki taldearen emanaldia, akelarrea eta sorginen dantza Zumalakarregi plazan.
Ezkontza eta ezkontz-auzatea Gurutze Saindua kalean.
21:00etan Foru plazara iristea eta momotxorroen dantza.
21:30ean Ezkila jotzea, mozorroak kentzea eta akaberako momotxorroen dantza.
22:00etatik 24:30era Dantzaldia Gaubela taldearekin, Foru plazan.

herrira eta hala hasiko dira ihote ospakizunak. Bihar herri ihotearen txanda denez, kalean barna ariko dira zamarraundi eta zamartxiki bihurriak, maskaritak, iratxoak, damak eta sorginak. Haurrendako egunarekin eta hiri ihotearekin osatzen da neguko ospakizunen egutegi olaztiarra.

>> Otsailak 13, ostirala

19:00etan Mari Arrokari ongi etorria girotzeko, gaztetxean elkarrekin mozorrotzera.
20:00etan Mari Arrokari ongi etorria, San Migel plaza.
21:00etan Auzatea, gaztetxean.

>> Otsailak 14, larunbata

14:30ean Bazkaria, gaztetxean.
18:30ean Herri ihoteak, areto futboleko pistatik San Migel plazaraino. Zortzikoa.

>> Otsailak 17, asteartea

17:00etan Haur ihoteak: berendua eta haur animazioa: Jau, Jau. Frontoian.
22:30ean Sardinaren hileta (hiletarako egoki jantzi). Gaztetxetik San Migel plazara. Ihoteen bukaera, torradak gaztetxean.

OLATZAGUTIA

Lau egun ihoteetarako markatuak

Otsaileko lau data gorde dituzte Olatzagutian inauterietarako. Urbasako Auzkolarrero kobazuloan bizi den Mari Arroka jainkosa gaur bertan jaitsiko

ZIORDIA

Mozorro txikiak

Ziordiko haurrak izanen dira beste behin garizuma bezperako eguneko protagonistak. Asteartean, 17:00ak aldera, haur ziordiar guztiak bilduko dira, mozorrotuta. Kalejira alaia osatuko dute, musika lagun. Ibilbidea despeditu ondoren, Errekakartea elkartean txokolate gozoa merendatuko dute.

bazterretik

Aurkene Ormazabal



Paris, printzesen eszenatokia

Goi joskintzaren ordua iritsi da, modaren erregina Pariseko eszenatoki garrantzitsuenetan egon da. Elie Saab, Chanel, Dior, Valentinok... aurkeztu dituzte haien kolekzio berriak aurtengo udaberrirako, baina zerk egiten ditu berezi? Desfile hauetan ez ditugu tendentziak soilik ikusten, benetako arte-lanak baizik. Eskuz egindako jantziak dira, leuntasunez egindakoak munduko tela onenekin. Gehienetan jantzi hauek oso bizi motza daukate, bakarrik momentu puntualetan ikusten ditugulako eta alfonbra gorria bihurtu da diseinatzaile hauen helburu nagusia.

Goi joskintza bezala, ezkongaiak ere janzten dira "bizitzan behin" lelopean. Ezkongaien jantziak tailerretan josten dira eta zati handiena eskuz egiten da, zetak, enkajeak eta ehun preziatuenak diseinatzaileen ametsa bihurtuz. Horrek soinekoak behin janztea dakar, edo bitan soinekoa herentzia familiarra denean.

Antzekotasun hauek ez dira paperean bakarrik gelditzen: Goi joskintzak askotan ezkongai batekin ixten ditu bere desfileak. Normalean arte-lan ikusgarrienak izaten dira. Karl Lagerfeld Chanel etxearen diseinatzaileak ez du sekula huts egiten ezkongaiarekin, ikuslea harritzea baitu helburu, zapatilekin adibidez edota ezkongai haurdun batekin iazko bilduman bezala. Bere 2015eko proposamena bi piezarekin dator, pailetezko ebase estiloko top mahuka motz bat eta lorez jositako gona eder batekin. Oraingoan ere ehundura desberdinen jolasa erakutsi digu. Jean Paul Gaultierrek ezkongai lotsagabeena aurkezten du gehienetan, aurten bere modelo guztiak ezkontza batera eraman ditu ideia esanguratsuekin, esate baterako erruloak izan dira nagusi.

Denek ez badute ere eztei proposamenen bat, xehetasun bakoitza, estilo edo materialak bilakatzen dira aurtengo ezkontzen inspirazio iturri. Klasikoek jarraitzen dute modan, kolore txuria, enkajeak eta nola ez! soinekoak. Baina zergatik ez ausartu koloreekin, prakekin, ehundura kontrasteak...

Lakuntzak sendo hasi du txapelketa

Nafarroako Bertsolari Txapelketan sarrera ezberdina egin dute Oier Lakuntzak eta Josema Leitzak. Biak ere gainezka zegoen Iruñeko Katakrak aretoan aritu ziren bertsotan. Saioko onena Jon Barberena izan zen (253 puntu) eta berak lortu zuen final-aurrekorako txartela. Lakuntza 6,5 puntura sailkatu zen (246,5 puntu) . Eta saioko gainontzeko puntuazioa koska bat beherago egon zen. Leitzak laugarren postua lortu zuen (232,5 puntu).

Bai urdiaindarrak nola arbizuarrak gainontzeko final laurdenetako sailkapenen zain egon beharko dute txapelketako hurrengo txandarako txartela lortzeko. Momentuz, puntukako sailkapen horretan Lakuntza buru da eta Leitza zazpigarren.

Irurtzun
Kultur etxea goraino bete zuten bertsozaleek txapelketako bigarren final-laurdena ikusteko. Saiori hasiera Irurtzungo Atakondoa ikastetxeko LHko 6. mailako ikasleen agurrak eman zien (Si Yuan Señas, Ane Huarte, Leire Irurtia, Uxue Lasarte, Irune Goikoa eta Maider Modrego). Ondoren Julio Soto, Julen Zelaieta, Migel Mari Elosegi *Luze*, Alazne Untxalo, Kotte Plaza eta Iban Garroren txanda izan zen. Soto izan zen saioko onena, eta puntuei erreparatuta, baita asteburukoa ere. Gainontzekoen maila parekatuagoa izan zen.

Hirugarren bertsolari sakandarra lanera

Igandean, 17:30ean, Zubiriko Gautxori jatetxean

Etzi Joseba Beltzaren txanda izanen da. Zubiriko final-laurdenean etxarriarrarekin batera Oskar Estanga, Amaia Elizagoien, Aimar Karrika, Sarai Robles eta Saioa Alkaiza ariko dira. Lehian sartuko den laugarren sakandarra Eneko Lazkoz etxarriarra da. Hilaren 22ko Lakuntzako saioan ariko da.

Hilerritik dator komedia

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Neskatila pinpirin bat baserrian, eta baserritar bat operan; ezberdinak diren bi mundu elkarren ondoan, maila soziokultural ezberdineko bi lagun aurrez aurre.

Ondoko hilobiko tipoa Begoña Bilbaok zuzendutako komedia jostagarria da. Aiora eta Pablo dira protagonistak. Lehena liraina, goxoa eta alarguna da; eta berekoia, burugogorra eta ezkongabea bestea. Bi gazte, bi mundu. Eta biak hilerrian elkartuko dira.

Txalo produkzioak ekoiztuta, Begoña Bilbaok zuzendu du komedia jostagarria. Bai Galartzak bai Garmendiak antzerki, telebista saio eta abarretan eskarmentu handikoak dira. *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlanaren gaztelaniazko bertsioa da (*El tipo de la tumba de al lado*) biek Altsasun emanen dutena.

Ikuslearen eguneko emanaldiak hasi dira sariak banatzen

Altsasuko kultur guneko ostegunetako zinema emanaldiek zinemarako sarrerak, Xurrut elkarteko tabernetan afariak eta Altsasuko Dendari Elkartearen 20 euroko baleak eskuratzeko bidea dira

Altsasuko Iortia kultur guneak zinema ikusleearen eguna hartzen du ilbeltzaren 15etik. Ostegunero gaurkotasunezko filma 3 euroren truke ikusteko aukera dute ikusleek. Aste honetan *Birdman* filma ikusteko aukera izanen da. Zinemara joaten direnak, filma ikusteaz aparte astero zozketaren batean sartzeko aukera du. Batetik, Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) ikusleen artean 20 euroko balea zozketatzen du. Bestetik, Xurruteko tabernek bi astean behin zinemarako sarrerak zozketatuko dituzte eta hileko beste bi astetan afariak (zozketetan sartzeko zinema sarrerak erakutsi beharko dira).

Hala, pasa den astean Maria Luisa Delfrade Razkinek ADEren deskontu txartela eskuratu zuten. Zinemarako sarrerak Miriam Antolinek, David Barrenak eta Joseba Salegik eskuratu dituzte.

Larrazpi bete doinu

Ihoteekin batera musikaz betetako da Irurtzungo Larrazpi gaztetxelkartea. Gaur, 23:00etatik aurrera Nafarroa 1512, Sykorax eta The Guilty Brigade taldeek joko dute. Bihar, berriz, 21:00etatik aurrera techno eta elekro-techno musika gaualdia dago prest. Amets, Arriza, Dark Eider, Fe, Pandortek, Urko eta Eder Pardo dj-ak ariko dira musika jartzen.

Pettiren kontzertua

Igandean, 20:00etan, Altsasuko Gernika tabernan

Berako bakarlariak amerikar sustraiak dituen rocka ekarriko du etzi Altsasura. Gitarra-jole trebea, blues arima duten kantuak ahots urratuz eta sakonez ematen ditu. *Astirtitan* (Bonberenea Ekintzak, 2014) argitaratu berri duen lana aurkeztuko du Altsasun. Beste lau lan argitaratuak ditu. Baita Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda edota Barrence Whitfield kantariekin partekatutako diskoak ere.

Laguntasunari buruzko antzezlana

Igandean, 19:30ean, Irurtzungo kultur etxean

Txori Garcia Urizek eta Ion Barbarinek dantza, antzezpena eta keinu-antzerki asko duen laguntasunari buruzko antzezlana eskainiko dute etzi. Hitz gutxi eta musika asko duen muntaia da, atrezzo gutxikoa. Antzezlana sortzeko Balkanetako ijitoen kulturan eta musikan inspiratu ziren. Hala, euren erara dotoreak diren bi lagun dira protagonistak. Bidaiari, immigrante edo nomadak? Nork daki. Bizitzak indarrez banatu ditu. Balkanetako gerra, edo beste edozein gerra zibil, bete-betean dela topo egiten dute. Eta topaketa horrek une komikoak eta samurrak sortaraziko ditu eszenatokian.

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 35%	euria: 90%	euria: 97%	euria: 80%	euria: 13%	euria: 28%	euria: 18%
Min: 2 Max: 10	Min: 3 Max: 8	Min: 4 Max: 7	Min: 5 Max: 8	Min: 4 Max: 6	Min: 2 Max: 7	Min: 2 Max: 11

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	11.5	-4.5	2.8
Etxarri A.	11	-7.4	2.2
Altsasu	10	-6	8.8
Aralar	0.2	-9.8	4.8
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
19	25	5	13

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
www.ventanasegoki.com
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixeguaixe
Otsaileko bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:
1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katxiporreta materiala.
2. 3. 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katxiporreta materiala.

>>11 galdera

Javier Mozo

Unanuko Mamoxarroa

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano

1. Noiz ospatzen dituzue inauteriak Unanun?

Igandean eta asteartean ospatuko ditugu. Igandean gazteagoak izaten dira parte hartzen dutenak eta asteartean helduagoei lekua egiten zaie. Herri txikia izanda, duela urte batzuk asteartean eta igandean ateratzen garenak berberak gara, baina aurten gazte batzuk badaude eta agian beraiei lekua eginen diegu.

2. Nola ospatzen dituzue?

16:00ak inguruan janzteko Unanuko Kontzejuan biltzen gara eta ordu erdi ala ordu bat geroago Mamoxarro ala Muttuz mozorratuta kalera joaten gara. 19:00ak bitarte Unanuko aldapetan gora eta behera aritzen gara eta 18:00etan auzatea egoten da elizako ate ondoan, txistorra, gazta, ardoa eta piper opilekin. Iluntzen duenean, etxez etxe eskean joaten gara trikitixarekin eta gero elkartean afaria egiten dugu. Garai batean, arrautzak eta patatak ematen zizkiguten afaria prestatzeko, baina gaur egun dirua ematen da. Igandean mozorratu garenok afaria egiten dugu eta asteartean, inauterietako egun handia ospatzeko herri afaria egiten dugu elkartean.

3. Zeintzuk dira Unanuko Inauterietako pertsonaiak?

Mamoxarroa eta Muttua. Muttuak ez du panpaxillarik eramaten. Ez du soinurik ateratzen mugitzen denean eta horregatik deitzen diogu Muttua. Panpaxillak zintzilik eramaten ditugun kaskabiloak dira eta mugitzen denean soinua ateratzen du. Mamoxarroek berriz, panpaxillak zintzilik daramatzate eta soinuak nondik dabiltzan zelatatzen ditu. Muttuak etxeetara sartu egiten dira Mamoxarroei jendea non ezkutatzen den esateko.

4. Zenbat urte ditu Unanuko Inauteriak?

Herriko zaharrenek hori ez dakite. Frankismoan inauteriak debekatuta egon zirenean Unanun ez ziren gelditu. Akaso gaur egungo askatasun eta normaltasunarekin ez ziren ospatuko, baina Unanun behintzat ez da etenik egon. Ahal den bitartean jarraituko dugu.

5. Zer irudikatzen dute Unanuko pertsonaiek?

Uztarekin erlazionatuta egon daitekeela entzun dut. Garai batean uztak garrantzi handia zuen eta izurriteak uxatzeko funtzioa omen zuten. Hori da entzun dudana, baina hainbeste urte eta gero zaila da ziurtasun handiz jakitea.

6. Zer jantzi erabiltzen dituzue?

Mamoxarroa zuriz janzten da, kamiseta zuria eta hanka luzeko galtzontziloekin. Gerriko gorria ala beltza, panpaxillak, bi zapi, bata buruan eta bestea lepoan, kareta eta txapelak. Muttua, berriz, emakumez janzten da. Andreen gona, bi zapi, txapela eta kareta ere bai, baina panpaxillak ez ditu jartzen. Arropa batzuk etxetik ekartzen dira eta beste batzuk Kontzejuan gordetzen dira. Garai batean panpaxillak etxeetan gordetzen ziren eta mozorratu baino lehen goizean panpaxillen bila joaten zen etxez etxe. Hots hori goiz goizetik entzutea izugarria izaten zen; orain ohitura hori galdu egin da.

7. Karetek balio izugarria dute. Badakizu zenbat urte dituzten?

Asko, herriko zaharrenek ere ez dakite. Zaharrenek ehun urtetik gora izanen dituzte, ziur. Batzuk galdu egin ziren eta kareta berriak egin ziren ondoren. Zaharrenak burnizkoak dira, txapa finekoak, eta bakoitzak margo ezberdinak dauzka. Zaharrenek adarrak zituzten lehenago, baina urteekin hautsi egin ziren.

8. Asko mozorratzen al zarete?

8-12 pertsona inguru ateratzen gara normalean. Igandean gehiago izaten gara, festa eguna delako. Asteartean 6 gutxienez urtero elkartzen gara, urtearen arabera.

9. Makilak ere ospetsuak dira. Zer motatako makilak dira?

Urritza erabiltzen dugu. Urtero Unanuko basora joan eta makila berriak prestatzen ditugu. Normalean makila nahiko finak dira.

10. Zergatik mantendu dira hainbeste urtez inauteriak?

Karetak hainbeste urtez mantentzeak zerbait esan nahi du; honekin aurrera jarraitzeko gogoa ematen dizu. Unanu herri txikia da, bakarrik festak eta inauteriak dauzkagu eta herriko jendearentzat inauteriak festa haundia dira, ia herriko festak baino askoz ere gehiago. Oso gurea den zerbait.

11. Non gordetzen dituzue karetak, panpaxillak, jantziak?

Kareta zaharrekin kontu handia izaten saiatzen gara. Berehala giltzapean gordetzen ditugu. Unanutik azken aldiz Olazti eta Altsasuko Nafarroa Oinezera atera genituen, eta ardura handiz ibili ginen berriz ere herrira bueltatzeko. Horrelako karetak galtzea herriarentzat sekulako galera izanen litzateke eta horregatik oso ongi zaintzen ditugu.